

**2022KO OTSAILAREN 16KO BATZAR NAGUSIAREN
BATZAR-EGUNKARIA (ITZULPENA)**

**DIARIO DE SESIONES DE LA SESIÓN PLENARIA DE
FECHA 16 DE FEBRERO DE 2022 (TRADUCCIÓN)**

AURKIBIDEA

Orrialdea

- Batzarra hasi da.....	4
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako lehenengo puntua irakurri dau: “Esther Martínez Fernández batzarkidearen egiaztgutuna.”	4
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako bigarren puntua irakurri dau: “Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Araua aldatzeko Foru Arau Proposamena.”	5
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Benito Ziluaga batzarkide jaunak hartu dau berbea	5
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Andrade Aurrecoechea batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	6
- Euskal Sozialistak taldeko Álvarez Castrejón batzarkide jaunak hartu dau berbea	8
- EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkide andreak hartu dau berbea	8
- Euzko Abertzaleak taldeko Díaz Insausti batzarkide andreak hartu dau berbea	9
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Benito Ziluaga batzarkide jaunak hartu dau berbea	11
- Euskal Sozialistak taldeko Álvarez Castrejón batzarkide jaunak hartu dau berbea	11
- EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkide andreak hartu dau berbea	12
- Euzko Abertzaleak taldeko Díaz Insausti batzarkide andreak hartu dau berbea	12
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako hirugarren puntua irakurri dau: “Foru arauaren proiektua, Bizkaiko Lurralde Historikoko 2019rako Kontu Orokorra onesten duena.”	13
- Ogasun eta Finantzen foru diputatu Iruarrizaga Artaraz jaunak hartu dau berbea	13
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Martínez Fernández batzarkide andreak hartu dau berbea.....	14
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Benito Ziluaga batzarkide jaunak hartu dau berbea	15
- Euskal Sozialistak taldeko Álvarez Castrejón batzarkide jaunak hartu dau berbea	16

- EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkide andreak hartu dau berbea	17
- Euzko Abertzaleak taldeko Lerma Mentxaka batzarkide jaunak hartu dau berbea	21
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako laugarren puntua irakurri dau: “Kudeaketa pribatuko adinekoentzako egoitzen kontrol ekonomikoa.”	23
- EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkide andreak hartu dau berbea	24
- Euskal Sozialistak taldeko Otermin Eraso batzarkide jaunak hartu dau berbea	25
- Euzko Abertzaleak taldeko Furundarena Olabarriaga batzarkide andreak hartu dau berbea	27
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Martínez Fernández batzarkide andreak hartu dau berbea.....	29
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Fernández Medrano batzarkide jaunak hartu dau berbea	30
- EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkide andreak hartu dau berbea	31
- Euskal Sozialistak taldeko Otermin Eraso batzarkide jaunak hartu dau berbea	32
- Euzko Abertzaleak taldeko Furundarena Olabarriaga batzarkide andreak hartu dau berbea	33
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Fernández Medrano batzarkide jaunak hartu dau berbea	33
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako bosgarren puntua irakurri dau: “Arartekoaren azkenengo azterlana kontuan harturik adineko pertsonentzako egoitza-sarean hartu beharreko neurriak.”	34
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Fernández Medrano batzarkide jaunak hartu dau berbea	35
- Euskal Sozialistak taldeko Campo Prieto batzarkide andreak hartu dau berbea	37
- Euzko Abertzaleak taldeko Urquieta Zuzaeta batzarkide andreak hartu dau berbea	38
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Martínez Fernández batzarkide andreak hartu dau berbea.....	39
- EH Bildu taldeko Duque Santacoloma batzarkide andreak hartu dau berbea	40

- Elkarrekin Bizkaia taldeko Fernández Medrano batzarkide jaunak hartu dau berbea	41
- Euskal Sozialistak taldeko Campo Prieto batzarkide andreak hartu dau berbea	42
- Euzko Abertzaleak taldeko Urquieta Zuzaeta batzarkide andreak hartu dau berbea	43
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Martínez Fernández batzarkide andreak hartu dau berbea.....	43
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako seigarren puntua irakurri dau: “Elikadura sistema lokalak sustatzea.”	44
- EH Bildu taldeko Arriola Alzola batzarkide andreak hartu dau berbea	44
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Benito Ziluaga batzarkide jaunak hartu dau berbea	46
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Andrade Aurrecoechea batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	47
- Euskal Sozialistak taldeko Otermin Eraso batzarkide jaunak hartu dau berbea	48
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Andrade Aurrecoechea batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	48
- Euskal Sozialistak taldeko Ortiz Zaballa batzarkide jaunak hartu dau berbea	49
- Euzko Abertzaleak taldeko Beitia Zurinaga batzarkide jaunak hartu dau berbea	51
- EH Bildu taldeko Arriola Alzola batzarkide andreak hartu dau berbea	53
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Benito Ziluaga batzarkide jaunak hartu dau berbea	54
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Andrade Aurrecoechea batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	55
- Euskal Sozialistak taldeko Ortiz Zaballa batzarkide jaunak hartu dau berbea	56
- Euzko Abertzaleak taldeko Beitia Zurinaga batzarkide jaunak hartu dau berbea	57
- Batzarra amaitu da.....	58

2022ko otsailaren 16ko batzarra goizeko 09:00etan hasi da.

Se inicia la sesión del 16 de febrero de 2022 a las 09:00 horas.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Buenos días, señoras y señores. Señor Diputado General, señoras y señores diputados, junteros y junteras, ciudadanos y miembros de los medios de comunicación que van a seguir esta Junta General por streaming. Buenos días y gracias por estar hoy también con nosotros.

Antes de empezar con el orden del día, en relación con las delegaciones de voto, indicar que Dña. Eneritz de Madariaga Martin ha delegado su voto a D. Xabier Benito Ziluaga.

Dicho esto, estamos dispuestos a entrar en el orden del día. El primer punto, Sr. Secretario.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

1.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Credencial [\(R.E.11/E/2021/0003872\)](#)

Autor: JUNTA ELECTORAL CENTRAL

Asunto: Credencial de Apoderada de Dña. Esther Martínez Fernández.

Documento Principal: [Ver](#)

Boletines: [Apoderado/a: Adquisición de su condición plena](#) (23A),

[Dictamen de la Comisión](#) (23B)

Expediente: [\(11/C/03/0003045\)](#)

1.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Batzarkide-agiria [\(11/E/2021/0003872SE\)](#)

Egilea: HAUTESKUNDE BATZAR ZENTRALA

Gaia: Esther Martínez Fernández batzarkidearen egiaztagutuna

Dokumentu Nagusia: [Ikusi](#)

Aldizkariak: [Batzarkidea: Batzarkidetasun osoaz jabetzea](#) (23A),

[Batzordearen Erespina](#) (23B)

Espediente: [\(11/C/03/0003045\)](#)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias. Debemos votar la el dictamen de la Comisión, que dice lo siguiente:

Una vez analizadas las especificaciones presentadas, y de acuerdo con la naturaleza normativa vigente, la Comisión, en sesión celebrada el día 1 de febrero, ha considerado que la situación actual de Dña. Esther Martínez Fernández no justifica su incompatibilidad como juntera y ha decidido declarar que su situación actual no es impedimento para ejercer de juntera.

Y precisamente eso es lo que vamos a votar. Votos a favor, votos en contra, no hay abstenciones. Por lo tanto, los votos emitidos han sido 47 y los 47 han sido a favor. Por tanto, el dictamen es aprobado por unanimidad.

Pasamos al segundo punto del orden del día, que dice.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jauna:

2.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Proposición de Norma Foral ([R.E.11/E/2021/0003868](#))

Autor: Benito Ziluaga, Xabier (EB)

Asunto: Proposición de Norma Foral de modificación de la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia.

Documento Principal:
([R.E.11/E/2021/0003868](#))

Boletines: [Admisión a trámite](#) (16A)

Expediente: ([11/A/07/0003043](#))

2.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Foru Arau Proposamena ([11/E/2021/0003868SE](#))

Egilea: Benito Ziluaga, Xabier (EB)

Gaia: Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Araua aldatzeko Foru Arau Proposamena

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2021/0003868SE](#))

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea](#) (16A)

Espedientea: ([11/A/07/0003043](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Es el turno del grupo y el juntero que ha presentado la iniciativa. Por lo tanto, el representante de Elkarrekin Bizkaia, Don Benito Ziluaga, tiene la palabra.

El Sr. **BENITO ZILUAGA** jaunak: Eskerrik asko mahaiburu andrea, egun on guztioi.

Aurkeztu dogun Foru Arau Proposamena azaltzen hasi aurretik, lehenengo eta behin kexa agertu gura dot jentaurrean, Bizkaiko Foru Aldundiak ez dauelako erespidetik emon, eta hori gure Araudiaren 128.2 eta 128.3 artikuluetan jasota dago. Izan be, Foru Gobernuak barriro be kasu honetarako ez dau bere lana egin, edo beharbada Batzar Nagusiek piperrrik be ez deusie ardura. Egia esan, ez dakit zein dan aukera bietatik txarragoa. Baina nik behintzat, Batzar Nagusietan nagoanetik, ez dot inoiz ikusi erespede-txostenik egin danik, eta bildur naz ni hona etorri aurretik be ez ete zan...

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Sr. Benito Ziluaga, perdone que le interrumpa, pero la emisión de criterio por parte de la Diputación es optativa. Como usted sabe, la normativa así lo establece. Por tanto, para que todos seamos conscientes, la Diputación tiene la opción de emitir el criterio o no. Que quede claro.

El Sr. **BENITO ZILUAGA** jaunak: Eskerrik asko mahaiburu andrea. Badakit zer dakarren Araudiak. Erespidetik emon ezean prozesuak aurrer egingo dauela dino.

Erespidea ez emoteko aukerarik ez dau emoten, eta azkenean, erespidea eukitea interesgarria litzateke eztabaidarako kontuan hartzeko.

Hori esanda, gaur Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorren erreforma kontuan hartzea eskatzen dogu, zehatzago 94. artikuluko hirugarrena, zerga-betebeharrak ez-betetze nabarmeneko egoeren publizidadeari buruzkoa.

Artikulu hori otsailaren 17ko 2/2016 Foru Arauaren bidez sartu zan, eta Bizkaiko Ogasuneko zordun handien zerrenda argitaratzea arautzen dau, morosoen zerrenda moduan ezagutzen dana. Urtero argitaratzen da, esan bezala, eta Bizkaiko Zerga Ogasunari milioi bat eurotik gorako zorrak daukiezan persona fisiko edo juridikoen izenak jasoten ditu.

Aldaketa honetan aurkezten dogun proposamen nagusia zenbateko hori 600.000 €ra jaistea da, eta zenbateko horretatik aurrera dagozan personak zerrendan sartuko lirateke.

Zordun horreen erantzule solidarioak be sartzea proposatzen dogu. Hori holan pentsau dogu, ze holangoak egon ezkerro, eurei be erreklamau ahal jakielako zorra legez. Eta zerrendea ulertzen badogu zordunek beren betebeharrak beteteko presino-neurri gisa, logikoa da horreek be sartzea.

Erantzule solidarioak sartzeko kontuan, figura horrek zorra kitatzeko aukerak handitu egiten dituala uste dogu, eta hori da zerrendaren beste helburuetako bat.

Azkenik, aitamen zehatz bat be egin da: zerrendan sartzeko alegazioak aurkezteko epean zorra kitatzen bada, logikoa danez, persona hori ez da zerrendan sartuko.

Aldaketa hori une honetan eta zenbateko zehatz horregaz aurkeztu dogu, zerrenda hori bere eremuan arautzen dauen Estaduko legea eguneratu egin dalako; zehazki, uztailaren 9ko 11/2021 Legea, zerga-iruzurraren aurkako prebentzino- eta borroka-neurriei buruzkoa, 13. artikuluan langa 600.000 eurora jaitsi dalako.

Zerrenda hori 2016tik dago martxan Bizkaian. 2020an 161 kide eukazan, azken urte honetan, 2021ean, 155, eta zerga iruzurraren aurkako tresna eraginkorra dala frogatu da. Horren erakusgarri da beste leku askotan be ipini dabela indarrean.

Zoritxarrez, gure zerrendaren buruan Iurvenor dago, Javier Fernández zoritxarrez ezaguna dogunaren promotora inmobiliarioa.

Zein da proposamen honen helburua? Disuasino-efektu handiagoa izatea edo lortzea; zerga-betebeharrak borondatez beteten lagunduko daben prebentzino- eta pedagogia-tresnak indartzea; eta, azkenik, herritarrei informazio garrantzitsua emotea, hau da, Ogasun Publikoagaz dagozan zorrak, handienak behintzat. Holan geratu da eta zure eretxien zain geratzen naz. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, Sr. Benito Zuluaga. El representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, Sr. Andrade Aurecochea, tiene la palabra.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Mahaiburu andrea. Egun on guztioi. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martiaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorra aldatzeko Foru Arau Proposamena aurkeztu da eztabaidatu eta bozkatzeko. Zehazki, 94.3 artikulua, txostengileak esan dauen moduan.

Ekimen honen bidez, gure foru-legerian, nahiko sui generis bada be, zerga-iruzurraren aurkako prebentzino eta borrokarako neurriei buruzko uztailaren 29ko 11/2001 Legearen edukia jaso nahi da. Lege hori, era berean, Kontseiluaren 2016ko uztailaren 12ko 2016/1164 Europar Batasunaren Zuzentarauaren transposizinoa da. Zuzentarau horren bidez, zerga-saihestearen jardunbideen aurkako arauak ezartzen dira, barne-merkatuaren funtzionamenduan zuzenean eragiten dabena, eta zerga-arloko arau batzuk aldatzen dira. Zehazki, hamabigarren artikuluko 9. paragrafoa, 5872003 Legearen 95 bis artikuluko 1., 4. eta 6. paragrafoetako artikulua aldatzen dituena, Zergei buruzko Lege Orokorretik.

Gaur izapidetzen hasi dan aldaketa hori, Estaduko legearen edukia jasotzen dau, baina alderdi batzuk sartu barik itxi be bai. Horrez ganera, beste hutsune arautzaile batzuk be badaukaz, eta gure zuzenketakaz hobetzeko asmoa daukagu, ekimen honek aintzat hartzeko izapide hau gainditzen badau.

Proposamena egin dauenak esan dauen moduan, Erreformaren osagai nagusia da 1.000.000 eurotik 600.000 eurora jaistea ordaindu barik dagozan zerga-zor eta -zehapenen zenbateko osoa, Foru Ogasunaren zordunen zerrendan sartzeko baldintza gisa. Eta, beste batzuen artean, solidariotzat jo diran zordunak Foru Ogasuneko zordunen zerrendan sartzeko aldaketa garrantzitsua sartu da.

Ogasuneko morosoen zerrendan agertzeko zorraren muga jaiste hori, esan dodan moduan, 600.000 €ra (% 40 gitxiago) jaitsi da, eta iruzur fiskalaren aurkako borroka irmoan kokatu behar da. Iruzur hori, gatx sozial larria, erruki barik jazarri behar da, beti be behar dan errespetuagaz eta herritarrak Zuzenbideko Estatu baten herritarrak behar dituan berme konstituzionalak beteta. Bide horretan beti aurkituko dozue Alderdi Popularra.

Horregaitik, gure taldeak ez dau lege-proposamen hau izapidetzearen aurka egingo, eta aintzat hartzearen aldeko botoa emongo dau. Baina gure erreserbak ditugu, zuzenketetan aurkeztuko ditugunak, proposamenak aurrera egiten badau legegintzako tramitaziorantz, eta hori gaur gertatuko dala uste dot. Izan be, hobetu beharreko beste alderdi batzuen artean, 600.000 €ko muga kopurutik kanpo geratu beharko lirateke geroratuta edo etenda dagozan zorrak eta zehapenak, eta irmo bihurtu ez diran beste batzuk, auzitan dagozan zorrak diralako, eta horreek argitaratzeak gatazka eragin leikielako gerora baliogabetzen badira.

Era berean, uste dogu zerrendatik irteteko klausula ez litzatekeela izan behar bakarrik zorduna zenbateko osoa ordaintzetik salbuetsita egotea; ezpada beste egoera batzutara be zabaldu beharko litzateke, 600.000 euroko zorra edo ordaintzeke dagoan zehapena ez gainditzea dakarren ordainketa partzialen kasuetara be zabaldu beharko litzateke. Bestela, foru-arauan zordunen zerrendan sartzeko ezarritako baldintzak eta inguruabarrak beteten ez dabean zordunen publizidadea zabalduko litzateke.

Ez gatoz bat, halaber, zerrendek izan behar daben informazioaren araudia kentzeagaz, lurraldeko toki-erakundeek eskumenak eskuordetzen dabean kasuetan publizidadetik kentzeagaitik.

Azken finean, hobetu daitekeen testua da argi eta garbi, baina nahikoa da kontuan hartzeko eta, ondorioz, araugintza-izapidetzeari ekiteko. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Andrade Aurrecoechea. El representante del Grupo Socialistas Vascos, el Sr. Álvarez Castrejón, tiene la palabra.

El Sr. **ÁLVAREZ CASTREJÓN** jaunak: Mahaiburu andrea, mahaikideak, ahaldunak, egun on guztioi.

2021eko uztailaren 10ean argitaratu zan Estaduko Aldizkari Ofizialean 11/2021 Legea, uztailaren 9koa, zerga-iruzurraren aurkako prebentzino- eta borroka-neurriei buruzkoa. Lege horretan zerga-saihestearen aurkako Arauak ezarri ziran, eta Elkarrekin Bizkaia taldeak lege hori aitatu dau foru-arauaren proposamenari buruzko idazkian.

Proposamena egin dauen taldeak dakianez, Espainiako Gobernuaren lege horrek hainbat neurri garatzen ditu hainbat arlotan, guztiak berari jagokon ezartzeko eremuaren barruan. Zerga-saihestearen kontrako neurriak, gardentasun fiskalaren aldekoak, nazinoartekoak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ganeko neurriak, Zergei buruzko Lege Orokorrari jagokozanak, zordunen zerrenda izenagaz ezagutzen danagaz zerikusia daukienak, hain zuzen be.

Jakina da era berean, Euskal Herriko Autonomia Estatutuan ezartzen dala lurralde historikoetako erakunde eskudunek zerga-araubidea mantendu, ezarri eta arautu ahal izango dabela beren lurraldean, Estaduaren zerga-egitura orokorra eta Estatuagazko koordinazio, harmonizazio fiskal eta lankidetzarako arauak kontuan hartuta. Bizkaiko Lurralde Historikoari jagokonez, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak lurralde historikoko zerga-sistemaren printzipio eta arau juridiko orokorrak ezartzen ditu, eta erreferentzia-esparrua osatzen daben figurei jagokezan zerga-sistemaren alderdi orokor guztiak arautzen dabezan arauak biltzen ditu, baita Zerga Administrazioaren eta zergapekoen arteko hartu-emonak be, batzuek eta besteek errespetatu eta bete beharreko eskubideak eta betebeharrak zehaztuz.

Beraz, botere publikoen betebeharra da arau juridikoak egiteko funtsezko izapideak betetea. Zalantza barik, Talde Sozialista bat dator proposatzaileagaz eztabaidatzen gabilzan arau-proposamenak bultzatzen dauen espirituagaz. Eta ekimena errespetatuz, esan behar dot edozein gobernurentzat bere ahalmenaren eremuan dagoala errealidade aldakorrek ordenamenduan eskatzen dituan aldaketak proposatzea. Holan, Ogasun Saila honezkero lanean dabil iruzurraren aurka egiteko beharrezkotzat jotzen dituan neurriak prestetan, zordunen zerrenda izenekoagaz zerikusia daukienak barruan dirala.

Esandakoak esanda, ezin dogu zure ekimenaren aldeko botorik emon. Besterik ez, eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted señor Álvarez Castrejón. Tiene la palabra la representante del grupo Euskal Herria Bildu, la Sra. Urkaregi Etxepare.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andrea: Gracias señora presidenta. Buenos días a todos y a todas.

Mañana se cumplen 5 años desde que las Juntas Generales de Bizkaia decidieran publicar la lista de los grandes deudores.

La decisión fue que la lista incluiría a los contribuyentes con una deuda superior al millón de euros. Para EH Bildu no era suficiente. Nuestra propuesta fue incluir en la lista a los que tenían una deuda superior a 100.000 euros.

No se aceptó la enmienda, pero pasados 5 años tenemos la oportunidad de estudiar si realmente ha sido efectiva esa limitación de un millón.

Se han publicado seis listados en Bizkaia. Y se repiten año tras año los que tienen mayores deudas: Iurbenor, 52 millones de € MOLDIS, 20 millones. Este año se ha incorporado una nueva empresa con una deuda de 18 millones. Son empresas que en muchos casos han quebrado para tener una deuda de esta envergadura.

Año tras año siguen las mismas personas jurídicas, la misma deuda, o aumentada por intereses, pero esa deuda muchas veces no se recupera y no creemos que sirva para concienciar en la lucha contra el fraude fiscal.

Cuando en 2016 se decidió publicar esta lista, el Gobierno Foral (PNV-PSE), en la exposición de la propuesta, decía: «Hay que dar paso a otro tipo de actos coercitivos, como los basados en la publicidad de comportamientos, que tienen un fuerte rechazo social».

EH Bildu considera que el rechazo social no se limita a las personas con deudas superiores al millón de euros. La sociedad tendrá el mismo rechazo incluso en los casos graves de pequeñas deudas.

Por eso presentamos la enmienda. Por eso creemos que ya es hora de bajar ese límite.

Elkarrekin Bizkaia propone rebajarlo a 600.000 euros en base a la ley aprobada por el Estado español.

Para EH Bildu, esa limitación es demasiado grande. Además tenemos un ejemplo más cercano, en Navarra. En Navarra se incluyen los que tienen una deuda superior a 120 mil €

EH Bildu ve más adecuada esta limitación. Además en Navarra apostamos por esa frontera todos los grupos políticos que estamos representados en estas Juntas Generales, excepto uno, el PP. Por tanto, ¿por qué no acordar aquí aplicar el límite que hay aquí en Navarra?

Pero hoy no estamos hablando de eso, hoy tenemos que decidir si damos vía libre o no a la Propuesta de Norma Foral presentada por Elkarrekin Bizkaia, y EH Bildu votará a favor de dar vía libre.

Luego discutiremos qué límite poner para entrar en esa lista de grandes deudores. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, Sra. Urkaregi Etxepare. Y tiene la palabra la representante del Grupo Nacionalistas Vascos, la Sra. Díaz Insausti.

La Sra. **DÍAZ INSAUSTI** andreak: Gracias señora presidenta y buenos días a todos y todas.

Elkarrekin Bizkaia presenta una propuesta de Norma Foral con el objetivo de modificar la Norma Foral 2/2005 de Tributos del Territorio Histórico de Bizkaia. Con la propuesta presentada, en concreto proponen modificar algunos apartados del artículo 94 de la citada Norma Foral.

Alde batetik, aipatu dan moduan, zerga-zordunen zerrendaren araubidea aldatzea proposatzen da; zehatzago, zerrenda horretan gainditu beharko litzatekeen zenbatekoa 600.000 eurora ekartea. Era berean, zerrenda horretan zordun solidarioak sartzeari proposatzen da, eta, horrezaz ganera, zordunak zerrenda horretatik kentzea planteatzen da, beti be baldintza bi beteta: zerga-zorrak eta -zehapenak osorik ordaindu izana, eta zerrenda horretan sartu dirala jakinarazo ondorengo alegazino-aldia amaitu baino lehen egin bada.

Neurriok guztiak iruzur fiskalaren aurkako prebentzino- eta borroka-neurriei buruzko 11/2021 lege barria Diputaduen Kongresuak onartu eta indarrean jarri ostean planteau dira. Lege horrek, zerrenda horretan sartzeko zenbatekoa murrizteaz gainera, iruzurrerako modu eta jokabide barriei aurre egiteko tresnak egokitzeko aukera emoten dau, eta barne merkaduan eragina daukien praktiken aurkako arauak ezartzen dituan zerga-ihesaren aurkako Europako Zuzentarauaren transposizinoa be barruan hartzen dau.

Gure aldetik, lehenengo eta behin, aurreratu gura dot proposamenaren edo kontuan hartzearen aurka bozkatuko dogula, eta argi geratzea gurako nueke ez dala ados ez gagozalako, ezpada 94 ter artikulua aldaketa hori honezkero jasota edo sartuta dagoalako Aldundia iruzurraren aurkako neurrietarako prestetan dabilen arau barrian.

Esan dogun moduan, Espainiako Gobernuak iaz onartutako prebentzino-neurriei eta iruzur fiskalaren aurkako borrokari buruzko legeak, Elkarrekin Bizkaiak planteatzen dauen aldaketa ez eze, iruzur fiskalaren aurkako prebentzinoari eta borrokari buruzko hainbat aldaketa be jasoten ditu, eta Aldundia beste neurri horreek be aztertzen dabil, prestetan dabilen iruzurraren aurkako arau barrian txertatzeko.

Lehenengo eta behin, adierazi gura dot Ogasun Sailaren helburu nagusietako bat iruzurraren aurkako borroka dala. Dakigunez, iruzurrak politika publikoei eragiten deustie, birbanaketa-politikak egitea gatzago egiten dau, eta erakundeek zerbitzu edo baliabide desbardinak eskaintzeko daukien gaitasuna be murrizten dau, besteak beste.

Horregaitik, iruzurra saihesteko eta iruzurraren ondorioak ahalik eta gehien murrizteko, Aldundiak Iruzurraren aurkako Batzordea sortu eban 2009an, eta batzorde horrek, aldi berean, Foru Ogasunak urtero argitaratzen dauen iruzurraren aurkako planaren erispide orokorrak onartu zituan.

Hain zuzen be, iazko planean, Aldundiak iruzurraren aurkako borrokaren eredua aldatzea planteau eban, eta aldaketa-eredu horren jarraipen gisa, aurtengo planaren funtsezko ardatza Batuz abian jartzea da, batez be online garatzen diran negozioen datu publikoak sare sozialetan eta Interneteko plataformetan arakatzan dituan tresna informatiko bat martxan jartzea, eta aurreko ekitaldietan egin diran beste jarduera batzuk.

Eta barriro dinot ez gagozala Elkarrekin Bizkaiak planteatzen dauen aldaketaren aurka, baina uste dogu Aldundia prestatzen dabilen neurriei buruzko Foru Arauaren Proiektua, neurri hori eta lurralde erkideko legean sartu diran beste aldaketa batzuk barneratzen dituan bezala, uste dogula osoagoa eta eraginkorragoa izango dala iruzur fiskala prebenitzeko eta jazartzeko. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Díaz Insausti. Pasamos al turno de respuestas. Para empezar, tiene la palabra el representante de Elkarrekin Bizkaia, el señor Benito Ziluaga.

Mientras viene el señor Benito Ziluaga al atril, les aviso de que se han separado las transaccionales, las transaccionales que corresponden a cada moción. Sé que los portavoces también las han recibido. Dicho esto, señor Benito Ziloaga, tiene usted la palabra.

El Sr. **BENITO ZILUAGA** jaunak: Eskerrik asko mahaiburu andrea. Kasu bitxia da, talde bakar bat be ez dagoalako proposamen zehatz horren aurka, baina bat bera be ez dago Araudi hau edo zerrendaren araudia erreformatzearen aurka; baina aldatzeko tramitazioa ez dau aurrera egingo.

Lehenengo eta behin, eskerrak eman gura deuseguz bai Alderdi Popularrari bai Euskal Herria Bilduri ekimena babestegaitik. Egia da bakotzak desadostasunak agertu dituala, edo hasierako proposamenagaz konparauta sartu beharko lirakeen beste gai batzuk. Baina horretarako dago izapide arauemailea, gero zuzenketen eta ondorengo negoziazioaren bidez, edo akaso lehenago agerraldietan eta informazioa batzen danean, Ganbera honetako gehiengo parlamentarioa asebeteko dauen proposamen zehatz bat lantzeko.

Alderdi Sozialistako eta Euzko Alderdi Jeltzaleko ordezkariak be alde dagoz, baina esan dodana, ez dau aurrera egingo. Antza danez, Bizkaiko Foru Aldundia aldaketa horretan dabil beharren.

Hasteko, esango neuke horretarako dala interesgarria erispidea bialdutea, holako gauzak jakiteko.

Baina hori esanda, nik ez deusat zentzu handirik aurkitzen erakundeen funtzionamendu horrerri. Hau da, Legegilea Gobernuaren zain ixten dogu, eta holan legeak egiteari ixten deusagu. Ez dakit, nik ez deusat zentzu handirik ikusten Ganbera hau hain gitxi erabilteari. Bere zeregina beste izapide administratibo bat baino ez da, hau da, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu aurretik aurkeztuko dozuen Foru Arauaren Proiektua argitaratu aurretik hemendik pasau dela erakusteko zigilua ipintea.

Ez gatoz bat jokatzeko modu horregaz, eta, egia esan, nahiko atsekabetuta gagoz, araudi hori aldatzea komeni dala danok ados egonda, ez dalako Foru Arauaren erreformaren proposamen-izapidearen bidez egingo.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señor Benito Ziluaga. Grupo Mixto-Partido Popular. Socialistas Vascos, señor Álvarez Castrejón.

El Sr. **ÁLVAREZ CASTREJÓN** jaunak: Mahaiburu andrea, mahaikideak, eskerrik asko. Bai, jaun-andreak, ahaldunak.

Benito jauna, kontua ez da legeak egiteari ixtea, eta ez da hori egiten dana. Esan dogunez, edozein gobernuren ahalmenen barruan dago legegintza-ekimenak hartzea eta momentua danean Ganberari aurkeztea. Ogasun Saila iruzurraren aurkako neurriak prestetan dabil, eta, gure ustez, ekimen arauemaile horrerri itxaron behar deusagu, laster ganbera honen esku egon, eta horregaz eztabaidatu ahal izateko.

Zure ekimena aurkezteko aukera bikaina ondod ago, baina, era berean, ulertu behar dozu Aldundiak, kasu honetan, gobernu-taldeak, eskura dituen baliabide parlamentarioak erabilten dituala. Zerga Administrazioaren eta zergadunen arteko hartu-emonak, zerga-justiziaren parametroak finkatzeko edo iruzurraren aurkako borroka prebenitzeko jarduerak errazteko erregulazioaren beste edozein aldaketa... gu horretann danean egon gara, gagoz eta egongo gara, ez euki horretan zalantzarik, denporea neurtzen, eta une honetan eta gobernutik denbora hori guri jagoku. Besterik ez, baina barrero dinot, uste dot zuk ondo baino hobeto dakizula, eta zure taldeak be bai, kontua ez dala arautzeari ixtea, eta ez dala hori egiten dana. Oso ondo. Eskerrik asko, besterik ez.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Álvarez Castrejón. Tiene la palabra la representante del grupo Euskal Herria Bildu, la señora Urkaregi Etxepare.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Muchas gracias señora presidenta. En la intervención anterior el señor Xabier Benito, representante de Elkarrekin Bizkaia, ha planteado o criticado que la Diputación no haya emitido su dictamen. Y tras este debate, para mí queda muy claro que era necesario ese informe. Precisamente sabiendo esa opinión, supongo por un lado que Elkarrekin Bizkaia hubiera decidido qué hacer con su propuesta y EH Bildu también habría valorado qué hacer con ella.

Aquí tenemos informaciones diferentes todos los grupos. Está claro que los grupos que forman el gobierno tienen más información, no sé si será cierta o no. Yo escucho por primera vez que el departamento de Hacienda prepara algo para rebajar el límite en torno a la lista de grandes deudores. Primera noticia. Me alegraría, pero todavía no sé si está discutiendo algo así. Pero digo, tenemos informaciones diferentes, y eso se soluciona con la emisión del informe de la Diputación, para que haya igualdad. Entonces esperamos que la próxima vez actúen así.

Aquí dice el PSE que la lista de morosos se refiere al límite. Yo no he entendido a la representante del PNV que se esté refiriendo tan claramente a eso, porque ha hablado de todas las medidas contra el fraude fiscal, pero aquí no estamos hablando de eso. Aquí estamos hablando de una propuesta concreta, una medida concreta contra el fraude fiscal y una propuesta concreta: rebajar el límite para figurar en la lista de grandes deudores. De eso estamos hablando. Por lo tanto es algo concreto, y lo de hoy no ha sido en principio contradictorio con la propuesta que el departamento de Hacienda y Finanzas está preparando o puede preparar. Aquí sólo estamos hablando de dar paso, y no de contenido. Por lo tanto, si se le da paso, luego veremos si hay que cambiar algo más o qué hacer. Pero como digo, aquí tenemos informaciones diferentes, y espero que la próxima vez contemos con el informe de la Diputación. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señora Urkaregi Etxepare. Tiene la palabra la representante del Grupo Nacionalistas Vascos, la Sra. Díaz Insausti.

La Sra. **DÍAZ INSAUSTI** andreak: Gracias señora presidenta, y buenos días otra vez. Labur egingo dot. Pentsau dot nire aurreko hitzaldian argi geratu dala gure jarrera, baina tira. Barriro dinot, guk bene-benetan sinisten dogu Aldundiak iruzurraren aurkako borrokan daukan konpromisoan. Aurreko hitzaldian esan dodan moduan, ez gagoz Elkarrekin Bizkaiak planteau dauen neurriaren kontra. Baina guk uste dogu Aldundia prestetan dabilen araua, neurri zehatz hori ez eze, Espainiako Gobernuak onartutako legeagaz bat datozen beste batzuk be jasoten dituan ez, osoagoa izango dala, eta, beraz, eraginkorragoa iruzur fiskal hori jazartzeko orduan. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted señora Díaz Insausti. Y terminado el debate, sometemos a votación si se toma en consideración o no la iniciativa. Todos estamos sentados. A favor de la toma en consideración. Votos en contra: 32. No hay abstenciones.

El resultado es el siguiente: en total se han emitido 50 votos, 18 votos a favor de la toma en consideración, 32 en contra, no ha habido abstenciones. Por lo tanto, no se toma en consideración. Tercer punto del orden del día.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

3.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Cuenta General
[\(R.E.11/E/2020/0001409\)](#)

Autor: Diputación Foral de Bizkaia

Asunto: Proyecto de Norma Foral para la aprobación de la Cuenta General del Territorio Histórico de Bizkaia correspondiente al ejercicio 2019.

Documento Principal:

[\(R.E.11/E/2020/0001409\),](#)

[\(R.E.11/E/2021/0002854\)](#)

Boletines: [Admisión a trámite](#) (3A),

[Admisión a trámite](#) (3B),

[Admisión a trámite](#) (185A)

Expediente: [\(11/B/08/0001301\)](#)

3.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Kontu Orokorra
[\(11/E/2020/0001409SE\)](#)

Egilea: Bizkaiko Foru Aldundia

Gaia: Foru arauaren proiektua, Bizkaiko Lurralde Historikoko 2019rako Kontu Orokorra onesten duena

Dokumentu Nagusia:
[\(11/E/2020/0001409SE\), \(11/E/2021/0002854SE\)](#)

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea](#) (3A),

[Izapidetzeko onartzea](#) (3B),

[Izapidetzeko onartzea](#) (185A)

Espediente: [\(11/B/08/0001301\)](#)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Tiene la palabra el representante de la Diputación, el Sr. Iruarrizaga Artaraz.

El Sr. **IRUARRIZAGA ARTARAZ** jaunak: Egun on guztioi. Joan dan urtarilaren 28an Batzordean Bizkaiko 19. urteko Kontu Orokorra eta Kontuen Auzitegiaren txostena eztabaidatu ziran arren, aurkezpen honetan 2019ko aurrekontu-ekitaldi horretako neurri ekonomiko nagusiak edo garrantzitsuenak zeintzuk diran aztertu gura dot, euron isla ekonomikoa kontu orokor honetan dago eta.

19. urtean, Aldundiaren sarrera arruntak 8.265 milioi eurokoak izan ziran; gastu arruntak 7.843 milioi eurokoak; eta horrek 422 milioi euroko aurrezki arrunta eragiten dau. Horrerik esker, 221 milioi euroko inbertsino garbia egin da, eta 201 milioi euroko finantzaketa-ahalmena sortu da.

Finantzaketa-ahalmen horrerik finantza-aktibo eta -pasiboen aldaketak gehitu behar jakoz, eta itxitako aurrekontu-eskubideen aldaketea, esate baterako doikuntza finantzarioak, Udalkutxa automatikoki sartzearen ondoriozko doikuntzak, eta abar. Horrenbestez, 2019ko ekitaldiko aurrekontu-emaitza doituak, urtearen amaieran, 35 milioi euroko aurrekontu-defizita euki eban.

Gastua, jakina, 8.347 milioi eurokoa izan zan, horreetatik % 80 batez be erakundeen konpromisoei jagokez, 6.689 milioi euro; eta gainerako % 20a 1.658 milioi euro dira, hau da, Bizkaiko Foru Aldundiaren gastuen aurrekontua.

Erakundeen konpromisoetatik, honeek azpimarratu edo zehaztu behar dira: Batzar Nagusien ekarpenak (9.000.000 €), Estaduari kupoan emondakoa (479.000.000 €), Euskal Autonomia Erkidegoari eta Eusko Jaurlaritzari egindako ekarpenak (5.290 milioi euro) eta udalen finantzaketa (900 milioi euro), 921 milioi euro. Aldundiak kudeatzen dituen gainerako 1.658 milioi euroei kendu behar jakez 1. kapitulua, langile-gastuak eta finantza-karga. Hori dana kenduta, geratzen dana da sailen gastuetarako, hau da, sailek beren eskumenak eta ohiko zein inbersinoko jarduerak garatzeko erabilten dabena, eta horretarako 1.263 milioi euroko geratzen dira. Eta danok dakizuenez, sailen gastu horretan gasturik handiena dakarrena Gizarte Ekintza da (% 41,17); atzetik dator Lurralde Garapena (% 17,28), eta abar.

Jarduera ekonomikoaren errebaso labur bat da hau, eta, era berean, 3 iruzkin egingo neukez Kontu Auzitegiak egindako 2019ko txostenari buruz. Zuek be euki zenduen txosten horren barri, auzitegiaren agerraldiaren bidez, eta, gero, eztabaidatu eta eztabaidatu ziran iruzkin eta oharren bidez, hilaren 28ko Batzordean berba egin zan moduan.

Nik egin gura dodan lehen gogoeta da Kontu Auzitegiaren txosten horretan paragrafo bat dagoala esaten dauena 19. urteko Kontu Orokorak alderdi esanguratsu guztietan adierazten dauela ekitaldi horretako jarduera ekonomikoa, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta haren soziedade publikoen ondarearen eta finantza-egoeraren irudi fidela islatuz.

Era berean, esan gura dot akats kopuruak behera egin dauela, eta agertu diranak kuantitatiboki zein kualitatiboki garrantzi txikikoak dirala Kontuen Auzitegiak aztertutako guztizko bolumena kontuan hartuta. Eta kontuan izan behar da Kontu Auzitegiak ez-egitezko txostenak egiten dituala; hau da, salbuespenak eta ez-beteteak adierazten ditu, eta ez dau adierazten aztertutako guztiaren bolumen osoa, gehien-gehienak zuzenak izan diranak.

Eta, azkenik, Legebiltzar honi jakinarazo behar deusagu Foru Aldunditik baliabide guztiak jartzen jarraituko dogula Kontuen Auzitegiak kontuei buruz eta kontu horreek Diputazinotik betearazteko moduari buruz uste dauenagaz ditugun aldeak hobetzen eta ahalik eta gehien ezabatzen, nahizta egia dan, era berean, zenbait puntutan Kontuen Auzitegiak eta guk interpretazino-erespide ezbardinak daukaguzala. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Iruarrizaga Artaraz, y damos paso al truno de grupos. A tal efecto, tien la palabra la representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, Sra. Martínez Fernández.

La Sra. **MARTÍNEZ FERNÁNDEZ** andreak: Buenos días, Eskerrik asko mahaiburu andrea. Egia da, euki dogu 19ko ekitaldiko kontuak beteteari buruz eztabaidatzeko aukera. Herri Kontuen Euskal Epaitegiko kideen azalpenak be hartu genduzan.

Iruarrizaga jaunak esandakoei jagokenez, lehenengoan egia da legezkontasuna aztertzen dala. Esaten jaku akats kopuruak behera egin dauela, baina ez dira gitxi oraindino be urteetan errepikatzen diranak. Eta uste dot hor be arreta jarri behar dala, salbuespen horreek behin eta barriro errepikatzen diralako.

Gero, egia da Foru Aldundiak alegazino batzuk aurkeztu ditu, eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak horreetako bat be ez dau onartu. Nik ez dakit lege-arauei buruz daukazuezan interpretazino-desbardintasun horreek bateratu zeinkiezan, baina uste dot hondino bidea dagoala Auzitegi honen eskakizunak beteten hobetzeko. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Martínez Fernández. El representante de Elkarrekin Bizkaia, Don Benito Ziluaga, tiene la palabra.

El Sr. **BENITO ZILUAGA** jaunak: Eskerrik asko mahaiburu andrea. Aurten be kontu orokorraren eztabaida normaltasunez doa. Ogasuneko foru diputaduak kontu orokorreko zifra batzuk emon deuskuz, eta gero Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren txosteneko puntu oso zehatz batzuk nabarmendu ditu; zehazki, araudia bete dauela dinoen alderdiak, kontuek ondarearen eta finantza-egoeraren irudi fidela adierazten dabela, salbuespenak gero eta gitxiago dirala. Eta hortik aurrera ez dago ezer interesgarriagorik txosten horretan, bere ustez.

Guk gurako geunke argibide horreei Herri Kontuen Euskal Epaitegiak igarri dituan beste salbuespen eta irregulartasunei emoten jaken balio bera emotea, ze ez ditu igarri une jakin baten bakarrik, urtez urte agertzen dira, behin eta barrero. Adibidez, Bizkaikoak Ondare eta Rekalde aretoetan jentearentzako arreta kontratatzearena aitaturko dogu. Zer dino Herri Kontuen Euskal Epaitegiak? Publizidade- eta lehia-printzipioak errespetatu barik egin dirala.

Argitu behar da zerbitzu hori Alaiki enpresari kontratau jakola, 2019an jentaurreko zerbitzuak emoteko 3,6 milioi euroko kontratuaren esleipendun izan zana, Euskadiko sektore publikoko kontratuen erregistroetan agertzen danez. Baina kontratazinoa publizidade- eta lehia-printzipioak bete barik egin zan, epaimahaiak adierazi dauen moduan. Aldundiak bere alegazioak egiten ditu, eta beti alegatzen dituzte ustekabeko arrazoiak. 2017an, langileak ustekabearen ordezkatzegaitik izan zan; 2018an, aurreikusi ezin ziran hainbat gertakari; eta 2019an, gehiegizko luzapena pleguen behin betiko idazketan. Ez dakit nik, baina 3 urtean ezbeharrak gehiegizkoa deritxot.

Bigarren puntuan, Bizkaiko Tutoretza Erakundeari eta BizkaiKOari egiten jake aitamena. Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arabera, izaera juridikoa egokitu beharko leukie merkatu-baldintzetan jarduten ez dabelako. Hori be urtez urte errepikatzen dan kontua da. Badirudi 2022a urte ona dala, eta oraingoan behintzat gai hori aztertuko dozuela. Ikusiko dogu zertan geratzen dan.

Gero beste hau be klasikoa da, baina 2019ko kontu orokor honetan desagertu da ohar bat da, erretiroagaitiko primen hedapenarena. Baina ez txarto ulertu, ze desagertu bada, ez da Bizkaiko Foru Aldundiak euskal sektore publikoaren kontuak fiskalizatzen dituen organo gorenaren jarraibideak bere gain hartu ditualako, ezpada GUFEK egindako konsulta baten ondorioz, Bizkaiko Foru Aldundiak irizpide bat emon ebalako idatziz, eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak ezin dauelako lege-arloko irregulartasun gisa sartu. Eta gai hori Herri Kontuen Euskal Epaitegiko ordezkariak azaldu eban iaz.

Gure ustez, ez da onargarria Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egiten dituan oharrak batere ez ulertzea, hasieran esan dodan moduan entzutea interesatzen jatzuezan kontuetan izan ezik. Batez be, urtez urte alegazino bera eta ideia-talka bera ikusten ditugulako. Baina, esan dodan moduan, gure ustez, Euskal Herriko organo fiskalizatzaile gorenaren eretxiak pisuren bat eta autoridadea euki behar dauela uste dot, bere gomendioak modu serioan kontuan hartu daitezkan.

Ez dogu esango be, dana txarto dagoala, hori be ez litzateke egia izango. Espediente asko berrikusten dira, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak salbuespenak baino ez ditu jasoten bere txostenean, hori holan da eta esan beharra dago. Era berean, esan dau urtetik urtera gero eta gitxiago dirala, baina norbaitek hitz egin behar dau salbuespen horreei buruz be, gure ustez horixe dalako ekitaldi bakoetako kontu orokorren lana berrikusteko eta egiteko punturik interesgarriena. Izan be, hor ikusi daiteke zein diran aplikau beharreko hobekuntza-puntuak.

Zentzu horretan, nabarmendu gura dogu errepide bidezko bidaiarien garraio publikoa kudeatzeko bost kontratu, hau da, Bizkaibus, 2014an esleitu ziranak, oraindino onartu barik dagoala 2016-17-18 eta 19. ekitaldiei jagoken behin betiko likidazioa. Behin betiko likidazio hori ekitaldia amaitu eta gehienez 6 hilabeteko epean egin behar zan. Lehenengo ekitaldia, esan bezala, 2016koa izan zan. Ustiapenari laguntzeko sistema bat ezarri izanaren ondorio dala alegatu da. Zentzuzkoa izan daiteke urtebetez, bi gehiegi iruditzen jat, baina nire ustez, gure taldearen ustez, 4 ez da zentzuzkoa.

Garrantzitsua iruditzen jat, baita, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta haren soziedadeen kontratazioei buruz hitz egitea. Izan be, persona asko ikusten ditugu behin-behinekotasun, ordezkapen edo partzialtasuneko lan-egoeretan foru-organoan eta enpresa-sektore publiko baten. Hori be ez jaku zentzuzkoa begitantzen.

Adibidez, Bizkaiko Foru Aldundian 47 pertsona dagoz aldi baterako langile gisa sailkatuta, eta 128 pertsona bitarteko aldi baterako langile eta ordezkapen gisa. GUFEn 428 persona dagoz lanpostu hutsak beteten, eta 535 baja-egoeran, ordezkapenetan, lizentzietan eta abar. Langileen ia % 70, kopuru oso handia. Eta enpresa-sektore publikoan 26 pertsonak egiten dabe lan lanaldi partzialean, eta 109k aldi baterako kontratuakaz. Hau da, plantillaren % 17. Eta horreek zifra orokorrak dira, baina soziedade bakotxari xehetasunez begiratu ezkeru, Basalan nabarmentzen da, aldi baterako kontratuak mugagabeak baino gehiago dirala; edo Garbiker, plantillaren % 34 aldi baterakoa daukana. Zifra horreek, ez gure ustez, objektiboki baino, oso altuak dira, eta ez dakit oso ondo zertan egin leien mesede foru-soziedadeei edo nori. Baina segurua da nori ez deus mesede egiten, erakunde edo soziedade publikoetarako lan egiten daben baina aldi baterako kontratuak daukezan langileoi.

Azkenik, Foru Gobernu honen gardentasun eza azpimarratu gura dot. 2019an, hasieran diru-bilketarako aurrekontuan jasotakoa baino 223.000.000 euro gehiago euki ebazan. Egia da diru horren zati handi bat beste administrazio publiko batzukazko konpromisoetarako transferitu zana, eta hori logikoa da. Baina foru gobernuak aparteko 40.000.000 euki ebazan, eta nora bideratu behar ziran erabagiteko ez ebazan kontuan hartu Batzar Nagusi honeek. Ez dot esan nahi Aurrekontuei buruzko Foru Arauak horretarako aukerarik emoten ez dauenik; ez jaku iruditzen gardentasun-ariketa eredugarria danik.

Idea bat egin daigun, 40.000.000 da Euskara eta Kultura Sailak euki eban aurrekontua ia osorik, edo Enplegu eta inklusioarena. Hau da, hona aurrekontuak onartzera gatozenez, bat-batean Sail oso bat zuzenketen eztabaidatik kanpo geratuko balitz moduan. Ez jaku egokiena iruditzen, kudeaketa egokiena. Eta, batez be, 40 milioi horreek zorra amortizetako erabili zirala kontuan hartuta. Biztanleria aktiboaren % 10 baino gehiago langabezia dagoan ekonomia baten, beno, 40 milioi horreek baliabideak mobilizatzen dabezan inbersino publikoetan injektatzeko erabili ez izana, kasu honetan giza baliabideak, aparteko diru-sarrera horrerri mesede gitxiegi ateratea egiten jaku. Besterik ez eta eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Benito Ziluaga. Tiene la palabra el representante del Grupo Socialistas Vascos, el Sr. Álvarez Castrejón.

El Sr. **ÁLVAREZ CASTREJÓN** jaunak: Mahaiburu andrea, mahaikideak, jaun-andreak, ahaldunak, egun on berriro.

Ogasuneko diputadu jaunak 2019ko aurrekontu-ekitaldiko magnitude ekonomiko nagusien azterketa bat aurkeztu deutso Ganberari. Bizkaiko Lurralde Historikoaren Kontu Orokorrak barne hartzen ditu ekitaldi horretan Aldundiko sailek, foru-erakunde

autonomoak, enpresa-erakunde publikoek, foru-merkataritzako soziedadeek eta foru-fundazioek egiten dabezan aurrekontu-, ondare- eta diruzaintza-eragiketa guztiak.

Pixka bat zorrotz nahi badozue, eta modu labirintiko samarrean, bat gatoz Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren txostenak, azken baten aztertuko dogunak, bere lana egin dauela, eta bere lanean jakin dogu Aldundiak, zorionez esan geinke, kaudimenez bete dituala egindako kudeaketa-agindu guztiak. Hau da, bere lana onargarria izan da, edo onargarria baino gehiago kasu batzuetan.

Bat gatoz Aldundiaren jarduera hau, ekitaldi hau positiboa dala. Ez bakarrik hazkunde ekonomiko nabarmena eragin daben zifra jakin batzuk aipatu diralako.

Garrantzitsuena, beharbada, Herri Kontuen Euskal Epaitegi honen eskutik dator, eretxi garbi hori nabarmentzen dabelako, eta, horregaitik, auzitegiak ez dau proposatu diruzaintzako gerakinari kontabilidade-doikuntzak egitea, ezta funts propioei be. Ez dau ziurgabetasunik planteatzen, ez dau kontuak interpretetako kontuan hartu daitekeen beste gertaera garrantzitsurik planteatzen.

Nik, zorionez, ez dot uste Herri Kontuen Euskal Epaitegi bat baino gehiago dagoanik, edo entzun dodanagaitik 2019koa ez dan beste ekitaldi baten gagozanik. Holan esan behar dot. Zure taldearen interesekoak izan daitekezan gaiak bilatu dira, baina besterik ez. Baina bai adierazi gurako neuke Herri Kontuen Euskal Epaitegiak zelan adierazten dauen bere eretxia; hau da, zelan lan egiten dauen.

Bere auditore-jardunean, eta azpimarratu behar dogu horixe dala bere auditore-jarduera, lege- eta kontabilidade-alderdiak eta finantza-analisiaren alderdiak hartzen ditu. Bere eretxia emoten dau legea beteteari buruz eta fiskalizatutako erakundeen kontuei buruz. Atal horreek dira garrantzitsuenak txostenean, ezelango zalantza barik, eta epaimahaiaren eretxi profesionala jasoten dabe. Eretxi profesional hori, egia esan, egin leikezan salbuespenen bidez agertzen da. 2019ko ekitaldian 4 salbuespen adierazi dira, 4 salbuespen 2019ko ekitaldian. Gainera, Auzitegiak barne-kontrolako eta kudeaketako prozedurei buruzko gogoetak adierazten ditu.

Oharrok, gogoratu oharrak eta ez ez-beteteak, auzitegiaren beraren eretxiz, lurralde historikoaren ekonomia- eta finantza-jarduera arautzen daben legezkotasun-printzipioak beteteari nabarmen eragiten ez deutesien akatsak dira.

Hala eta guzti be, kontuan izan behar dogu oharrak behera doazela, baina kontuan izan behar dogu, azkenik, auzitegiak berak bere txostenak hobetzen dituan bezala, sinpleagoak eta ulergarriagoak izan daitezkan, fiskalizatutako erakundeak be barne-kontrolako sistemak hobetzen doazela, eta auzitegiak egiten dituan gomendio asko gehitzen doazela, eta, beraz, urtero emondako eretxi eta gogoeta horreek hobetu egiten dirala eta salbuespen gitxiago jasoten dabezala. Beharbada une historikoren baten, zikloa osatuko dogu eta ez dogu salbuespenik izango. Perfektua hobetu ezin dana da. Beharbada perfekzioaren bidean gagoz.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señor Álvarez Castrejón. Tiene la palabra la representante del grupo Euskal Herria Bildu, la Sra. Urkaregi Etxepare.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Gracias señora presidenta. Tal y como señalé en Comisión, cuando hablamos de la Cuenta General 2019, lo primero que debemos destacar es que, por primera vez, existe un informe de género.

Gauza pare bat gogoratu gura dodaz. Lehenengoa: 2006ko Mendekotasunen Legeak, 2006ko abenduan, aldaketa kopernikarra proposatu eban, halan esan ahal bada, personak jagoteari jagokonez. Baliabide publikoak edo pribatuak euki ezkeru, personaren batek preminea baeukan, eta baliabideok ipini, helburua baliabideak mantendu ahal izatea bermatzea zala emoten dau; baina hortik beste aldera pasetan da: persona batek, menpekotasun bat dauka, premina bat dauka, eta persona horrentzat interbentzino-plan bat jarri behar da, eta baliabideak egokitu behar dira persona hori duintasunez eta ahalik eta kalidaderik onenagaz bizi daiten.

Horixe gertatu da, hori 2006ko Legetik dator, eta 2008ko legea gehitzen da, eta, gero zerbitzu-programeagaz eta gainerako tresnakaz, 2015ean artikulau egiten da. Urkaregi andreak esan dau, eta egia da. Guk, Euskadin, erakunde-egitura trinkoa eta konplexuegia daukagu; ze danok gure eginkizunak oso ondo zehaztuta daukaguz arren, egia esateko, praktikan jartzeko orduan, batzuetan kontraesanak daukaguz, konplikazinoak, eta horreek antolatu behar izaten ditugu. Eta hori lurralde txikia izanda, eta arlo publikoaren laguntza gehien behar daben personentzako inbersinotan eta sentsibilizazino-gaitasunean aitzindaria dan lurraldeetako bat da. Baina, halanda be, ikusten dogu eska geratzen garala.

Nik lehen esan gura izan dodana da gure jarreran beti personearen egoerea hartuko dogula kontuan. Beraz, kudeaketa pribatuak, edo kudeaketa publikoak, ratioek,

eztabaidan dagozan lan-egoerek, guztiak eragiten deusalako personeari, zentzu jakin bat eukiko dabe arreta jasoten dauen eta Menpekotasun Legeak babesten dauen personeak behar bezalako laguntza badauka, behar bezala babestuta badago, eta nahikoa baliabide badago banakako garapen-planak aurrera egin daian. Izan be, hemen darabilguna ez da baldintza batzuk bakarrik, pertsoeagaz zerikusirik ez daukienak. Persona zehatzak daukaguz gogoan, txarto pasetan dabilzan personak, eta guztion alkartasuna behar daben personak.

Eta ni itzelean pozten naz Euskal Herrikoa bezalako komunitate bateko kide izateagaz, Menpekotasun Legea izan zana benetan bete daiten hainbesteko ahalegin eta eskuzabaltasunez diru asko inbertitzen dauelako. Baina onartzen dot gabeziak dagozala, eta hau lehenengo pausoa da esateko: guztion artean aurrera egingo dogu bidean dagozan arazoak konpontzeko. Besterik ez, eta uste dot gaur albiste ona dela Ganbera osoaren adostasuna. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señor Otermin Eraso. Tiene la palabra la representante del Grupo Nacionalistas Vascos, señora Furundarena Olabariaga.

La Sra. **FURUNDARENA OLABARRIAGA** andreak: Gracias de nuevo, señora presidenta, y buenos días a todos. Yo también quiero poner en valor todo el esfuerzo realizado por el grupo socialista y por usted, señora Urkaregi, por parte del grupo de EH Bildu. Y aplaudo que hoy aquí vamos a aprobar por unanimidad esta transaccional.

Creo que es importante para todos llegar a acuerdos en un tema tan delicado y que todos hagamos un esfuerzo y tengamos una actitud positiva. Para lograr el acuerdo y el consenso, de conseguirlo, señora Urkaregi, siempre hay que dejar algo al lado, todos dejamos algo, tanto ustedes como nosotros, todos. Si tenemos que llegar a un acuerdo, todos debemos cerrar algo en las esquinas. Pero lo importante es que lo hemos conseguido. Y quiero decirle que la Diputación no tiene ningún miedo a que se someta a más controles. Prueba de ello son las precisiones que se recogen en el Anexo cuarto. Se pondrán todas las garantías desde la Diputación, no tenga ninguna duda, yo no tengo ninguna duda. Y así está puesta o definida la inspección, actúa con rigor y contundencia, y toma medidas en caso de incumplimiento de las obligaciones. Estas obligaciones se cumplen de forma satisfactoria, o si no pondrá medidas correctoras para que así sea.

Y el señor Otermin decía que él se siente orgulloso del sistema de servicios que presta la Acción Social de este país. Yo también estoy muy orgullosa, no sólo de eso, pero yo también estoy muy orgullosa. Nada más. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señora Furundarena Olabariaga. El Grupo Mixto no participará. El representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señor Fernández Medrano, tiene la palabra.

El Sr. **FERNÁNDEZ MEDRANO** jaunak: Gracias señora presidenta, buenos días otra vez. Zerbait aho batez onartuko danean, uste dot azkenengo berba egiten dauenaren erantzukizuna dala holako akordioek emoten deuskuen poza baretzea. Ez da ahaztu behar ahobatezko akordioak dakarskun poztasun hori konpromiso horrek dakarrena betetean berretsi behar dala.

Orduan hori kontuan hartu behar da. Eta barriro be arintzeko horri buruz berbaz gabilzan denbora-esparruan kokatu behar da. Barriro dinot, joan den astean zahar-

etxeetako langileen greba bat egon da, % 100eko gitxieneko zerbitzuakaz. Patronalak grebaren aurkako planfletoak egin ditu langileen artean mobilizazinoa prestetako, eta, hain zuzen be, bildurra sartuaz eurek aldarrikatzen ebenak, soldatak eremu publikokoakaz parekatzeak, ondorio ekonomikoak ekarri leikezala-ta.

Gero Foru Aldundiak edo Europako fondoek ordainduko deusien prestakuntzaren gaia ateraten da. Orduan, esan gura dot, argi eta garbi ez da egoitzetako kudeatzaileei koipekeriak egiteko unea, eta horregaitik uste badogu interesgarria dala gaur gai horretan ados jartzea.

Beti esaten jat kontua ez dala kudeaketa pribatua egoitza-zentroen esparruan onargarria dala bakarrik, horrez gainera alderdi zehatz bat be badagoala, ekimen pribatu mota jakin bat, irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimena, Gizarte Zerbitzuen Legeak sustatu beharko leukena.

Hain zuzen be, ekimen hau babestuko dogu urteotan ikusi dogulako konpromiso hori ez dala loteslea. Esku pribatuek kudeatutako egoitza-plaza guztiak hartzen baditugu, uste dot kalkulu nasaia eginda % 20k bakarrik erantzuten deusala irabazi-asmorik gabeko tipologia horrerri.

Ez gara sartuko eztabaidatan, irabazirik egon ez arren negozioa egon daitekela-ta. Bezeroeen sareek ez dabe diru askorik behar eusteko, beste bide batzuetatik mantendu daitezke. Baina gaur ez da gai horretan sartu behar.

Adinekoen zaintza horretan ze eragilek esku hartu leikien aitatu dogunez, gogorarazi gurako neuke Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 90. artikuluan dagoala, beste behin be, erdibideko interpelazinoaren ondoriozko mozino horren alde bozkatzeko giltza, hau da, Administrazioari eta gizarteari aurkeztutako jardueretan irabazi-asmoa estaltzea arau-hauste larria dala.

Azken gauza bat. Hurrengo mozinoan be hainbat puntutan apustu bat egingo da, adinekoen egoitza-zentroen dekretua berrikusteko prozesu honetarako erespideak emoteko. Benetan espero dot erespideok kontuan hartzea, eta bat-batean erespide gehiegi ez izatea halako berrikuspen garrantzitsu baten kontuan hartzeko. Benetan kontuan hartzea espero dot, eta orain konpensetako, gitxienez ildo horretan lanean hasteko edo egoitza-zentroen fiskalizazino-lanari jarraitzeko ados egoteak pozten nau, gure adinekoen zaintzaren gainetik aparteko beste interes batzuk nagusi izan ez daitezkan. Besterik ez.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señor Fernández Medrano. Y terminado el debate, y cuando todos estemos sentados, someteremos a votación la transaccional. Podemos votar; por tanto, votos a favor de la transaccional, no hay votos en contra, no hay abstenciones.

Y como ya adelantaban, se ha aprobado por unanimidad, ya que han sido 50 los votos emitidos y 50 los favorables. Quinto punto del orden del día.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

5.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Moción derivada de

5.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzeta:

Jatorrizko ekimena: Itaunetik eratorritako

Interpelación ([R.E.11/E/2022/0000166](#))

Autor: Fernández Medrano, Héctor (EB)

Asunto: Las medidas a adoptar en la red residencial de mayores atendiendo al último estudio del Ararteko.

Documento

Principal:

([R.E.11/E/2022/0000166](#))

Boletines: [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas](#) (48A)

Expediente: ([11/B/20/0003113](#))

Mozinoa ([11/E/2022/0000166SE](#))

Egilea: Fernández Medrano, Héctor (EB)

Gaia: Arartekoaren azkenengo azterlana kontuan harturik adineko pertsonentzako egoitza-sarean hartu beharreko neurriak

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2022/0000166SE](#))

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (48A)

Espedientea: ([11/B/20/0003113](#))

La Sra. **PRESIDENTA** / **LEHENDAKARI** andreak: Es el turno del juntero que ha presentado la iniciativa, por lo que el señor Fernández Medrano tiene la palabra.

El Sr. **FERNÁNDEZ MEDRANO** jaunak: Gracias señora presidenta, hola otra vez. Arartekoak koronabirusaren pandemiak egoitzetan izan dauen eraginaren lehenengo 10 hilabetei buruz egindako azterlanean, esan daigun Elkarrekin Podemos-IUk joan dan hilean Aldundiari egindako interpelazinoa sustatu eben arrazoiak egozala.

Interpelazinoa bost esparru zehatzi buruzkoa zan, guretzat giltzarri ziranak eta azterlan horretan topau ditugunak: gardentasuna, egoitza-unidadeen kontua, ratioak, kontingentzia-planak eta gai etikoak. Arartekoaren Erakundearen azterlan batetik abiatzeak emoten dauen babes sinbolikoagaz, eta kontuan hartuta holako dokumentuak dirala akordioetarako gune komuna izan daitekezanak, ez bakarrik akordio horreetan, baita ordezkartza-kamera guztietan be, gitxienekoetatik eratorritako mozino bat planteau genduan, onartua izatea gura genduana, eta etorkizunean egoitzetako erabiltzaileen zein bertako langileen bizi-baldintzak hobetzeko balio eikeana. Negoziazino baten ostean, interesgarria deritxagun transakzino-prozesu batera heldu gara, planteatzen genduan puntu bakotxaren funtsezko motibazinoak zeozelan errespetatzen dituana.

Lehenengokoan, interpelazinoan esan genduan moduan, Arartekoak bere azterketan aitatzen zituan informazinoa eskuratzeko arazoak aztertu genduzan. Alde batetik, egoitza-kudeatzaileek informazinoa emoteko daukien zailtasunaren gaia dago, eta bestetik, foru-aldundiek eskatutako informazinoa emoteko eskaintzeko euki dabezan arazoak, konfidentzialtasun-kontuei eta gainerakoei jagokenez.

Arartekoaren azterlana sortzeko alde zurreko arazo hori nahikoa garrantzitsua dala uste dogu zenbait informazinoaren iluntasunerako, eta uste dogu zentzu horretan landu behar zala Arartekoak esandakoaren inguruan. Konfidentzialtasun-araudien eta informazinoak eskuratzeko eskakizunaren artean dagozan eragozpenak aztertu. Ikertzaileek ez eze, herritarrek be informazinoetarako sarbidea izan beharko leukie, eta hori elementu interesgarria izango litzateke zentroen zerbitzua ebaluatzeko, eta demokrazia orokorrerako be.

Lehenengo puntu honetan, egia bada be idazketa beharbada orokorragoa dala, nik uste dot ados gagozala kexa egin dogun informazinoari buruzko oztopo demokratiko honetan aurrera egiteko, ez bakarrik gu, baita iraganeko eta gizarte zibileko hainbat eragile be Arartekoak aztertu aurretik be.

Badakigu, eta hori puntu guztietan gertatzen da, baliteke idazketa orokorragoa izatea eta asmo gitxiagokoa izatea, baina ezin dogu ahaztu gardentasuna hobetzeko konpromisoa dala, Arartekoaren azterlan baten oinarrituta. Zer esan gura dot horregaz?

Azterlana irakurritzat joten da, eta adostu dogun erdibidekoan berez doana azterlan horren legitimidadea da, nik behintzat halan ikusten dot. Gardentasunean lan egin beharra aitortzea da, abiapuntu dogun azterlanak bermatua.

Aurrera egingo dogu. 2. puntuan adierazi dogu, azkenean ondartu dan egoitza-unidadeen eredu zehatza zelan aplikauko dan jakinda, eredu horren arabera araututako plazak % 5 gehiago ordainduko zirala kontuan hartuta, Arartekoak onartu edo aitortu egiten eban eredu onuragarria dala, pandemian eta kutsatzeko arriskurako halan izan zan, eta esaten zan arreta jarri beharko litxakiela batez be eredu horretan zehatu beharreko alderdi materialei, arkitektonikoei.

Gure ustez ez zan onargarria aplikazioaren ebaluazioa egoitzetako kudeatzaileen esku bakarrik ixtea, eta zentroek egingo ebezan jarraipen- eta kontrol-txostenak batuko dituan tresna bat diseinatzea proposatu genduan. Ezin da dirurik emon ezeren truke edo neurri bako konfiantzeagaz. Nire ustez, proposamen horren espiritu orokorra erdibideko zuzenketan be jaso izan da, eta bertan egoitza-unidadeen eredu aplikazioari buruzko egoitza-zentroen ebaluazio-txosten horreek biltzeko eta sistematizatzeke gaiari eusten jako funtsean.

Bai hirugarren puntuak bai laugarrenak, lehen esan dodan moduan, orain martxan dagoan adinekoentzako egoitza-zentroen dekretua berrikusterakoan erespide horreek emoteagaz daukie zerikusia,.

3. puntua. Konsultautako aditu-taldeek, egoitza-unidadeak dirala-ta ratioak gorantz berrikusteko aukereaatera eben, Arartekoak erabilitako analisi-elementuetako bat. Orain da unea. Zenbat langile beharko lirartekeen 25 personako bizikidetzak-unidade horreetan eta. Orduan, 126/2019 Dekretuaren 39. artikulua aldatzea proposatu genduan, erespideok kontuan hartzeko.

Laugarren puntuak kontingentzia-planakaz lotuta dago. Deigarria zan, irakurri ahal izan genduan, agente infekzioso arrunten aurkako kontingentzia-planik ez eukitea, egoitza-zentroetara esku artean eukena aztertzeraz joan orduan. Erdibideak egoki zehatza dau hori, kontuan hartuta kontingentzia-planok arauz jasota egon behar dirala eskatu ahal izateko. Eta prebentziokoakaz batera, lehendik be baegozanak, agente infekzioso arrunten aurkako kontingentzia-planak ez eze, koronabirusaren aurkakoak be sartzea planteatzen da; izan be, badirudi pandemiaren hasierako uneetako moduan barik beste era batera luzatzeko itxura daukala.

Amaitzen joateko, amaieran, eta hori dagoan moduan onartu da, Arartekoaren oharra onartuz, Etika Batzordeen presentzia handiagoa edo gehiago inplikatzeko beharrari buruz, zehatzago, Bizkaiko esku-hartze sozialeko Etika Batzordearena, horixe dalako guri jagokuna. Bosgarren puntu horretan planteau genduan Aldundiak sustatuta jardunaldi batzuk egitea, eta, jakina, kontuan hartzea Bizkaiko Esku-hartze Sozialeko Etika Batzordea, Arartekoak behar zituan gizarte-arretako eguneroko tresna horreek lantzen eta eskaintzen ahaleginduteko.

Azkenengo puntuan, zeharka, senideen alkartean, erabiltzaileen eta sindikatuen erespidea kontuan hartzea planteatzen zan. Bertan behera geratu da, baina, era batera edo bestera, presente dago azken erredakzioetan.

Laburbilduz, gardentasun handiagoa, kontrol handiagoa, ratio gehiago eta duintasun handiagoa, egoitzetan inplikaturaz dagozanak kontuan hartuta. Askok poztan naz erdibidekoa lotu izan dogulako. Orain ikusi egin behar Ganberako gainerako taldeek zer balorazio egiten dozen. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Fernández Medrano. Como los Socialistas Vascos y Nacionalistas Vascos presentaron enmienda, y acto seguido, en nombre del Grupo Socialistas Vascos, la señora Campo Prieto, tiene la palabra.

La Sra. **CAMPO PRIETO** andreak: Gracias señora presidenta, buenos días a todos. Hainbat aldiz hausnartu eta eztabaidatu dogu adinekoen egoitzei buruz. Atzera egin beharrik gabe, aurreko puntuan eta puntu honetan be, egoitzei buruz berbaz jarraitzen dogu, Elkarrekin Bizkaiak proposatuta eta Arartekoak adinekoen egoitzetan pandemiak daukan eraginari buruz egindako txostenari buruz.

Gaiari buruz eztabaidatu dogun aldietan, danok ados egon gara osasun-krisiaren hilerik gogorrenetan kalteberatasun bereziko lekuak izan dirala. Gertaera tragiko horrek, kasu askotan, zer gertatu dan aztertzea eta aplikatutako ezohiko neurrien eragina ebaluatzea ekarri dau. Eta argi dago, preminazkoena konpondu dan arren, hutsuneak eta ahuleziak azaleratu dirala. Eta halantxe jasoten dau gaur eztabaidatzen gabilzan interpelazino-mozinoa eragin dauen txostenak.

Nire taldean beti defendatu izan dogu kalidadeko gizarte-zerbitzuak bermatuko dituan esku-hartze publikoa, eta krisi honetan ikasitakoak hori bermatzeko urtenbideak planteatzera behartzen gaitu. Juanek aurreko interbentzinoan esan dau. Sozialistentzat helburua da onartu ezin ditugun hutsuneak zuzentzeko beharrezkoak eta nahikoak diran aldaketak egitea.

Gure erantzukizunetik behar diran aldaketak bultzatu behar ditugu, behar diran erregulazioak egokitzeko, gure egoitzetan kalidadeko asistentzia bermatzeko, sistema personetara egokitzuz, eta ez alderantziz. Zaintza-eredu barri baterako trantsizinoan aurrera egiten jarraitu behar dogu, oro har, eta egoitzetan bereziki.

Guk Elkarrekin Podemosen mozinoa ikusi genduan, eta proposamenaren asmoagaz bat egin arren, pentsau genduan hobeto izango zala eztabaidatzea batzordean adostutako agerraldia egin ondoren. Arartekoak txostena azaltzeak modu objektiboagoan hausnartzen eta eztabaida aberasten lagundu euskuala uste genduan. Halan jakinarazo geuntsan Elkarrekin Bizkaiaren ordezkariari, baina azkenean gaur eztabaidatu dogu.

Esan dodan moduan, bat gatoz proposamenaren asmoagaz, eta, horregaitik, euskal sozialistok zuzenketa transakzional bat aurkeztu dogu Euzko Abertzaleakaz, ñabardura batzuk jasoten dituana, datu- eta informazio-bilketa hobetzeko, langileen ratioa hobetzeko, kontingentzia-planak egiteko prebentzinoa bermatzeko eta balizko agente infekziosoen aurrean jarduteko, eta ikuspuntu etiko batetik arreta hobetzeko neurriak bultzatzeko. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiari honako hau eskatzea proposatzen dogu: egoitza-zentroei buruzko informazioa argitaratzen aurrera egin daiala, eta diagnostiko-test bat egin daiala, 119/2021 Dekretuak ezartzen dituan baldintzetan eta tresnakaz eredu konfidentzialen aurrerapenak kuantifikatu ahal izateko, eta Bizkaiko Esku-hartze Sozialerako Etika Batzordeagaz jardunaldi batzuk egin daizala egoitzetako zaintzak etikaren ikuspegitik hobetzeko bultzatu behar diran tresnak zehazteko.

Era berean, Eusko Jaurlaritzari eskatzen deusagu 126/2019 Dekretua berrikusteko hasitako prozesuan balioetsi daiala bizikidetza-unidade bakoetako ratioak ezartzea eta infekzino arruntei eta Covid-19ari aurre egiteko kontingentzia-planak sartzea nahitaezko dokumentazio gisa.

Azken baten, kalidadeko arreta bilatzen aurrera egitea proposatzen dogu, persona bakoetarengan, bere duintasunean eta bere eskubideetan oinarrituta, eta egoitza eredu

barri batera egokitzen jarraitzea, edozein dala be egoitzaren titulartasuna eta kudeatzeko modua. Itzulerarik gabeko bidea da, eta halan erakusten dabe administrazio- eta erakunde-maila guztietan, Foru Aldundian, Eusko Jaurlaritzan eta Espainiako Gobernuan ezartzen dabilzan ekintzek eta ekimenek. Baina asko dago egiteko, modurik onena danok batera akordioakaz joatea da, danok ardura bera daukagu-ta. Espero dogu, era berean, gaur beste urrats bat emotea horretan aurrera egiteko. Nada más, gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Campo Prieto. La representante del Grupo Nacionalistas Vascos, Sra. Urquieta Zuzaeta, tiene la palabra.

La Sra. **URQUIETA ZUZAETA** andreak: Gracias señora presidenta y buenos días a todos. Gaur, Arartekoak argitaratu barri dauen azterlan zabal eta zehatzaren edukari buruz eztabaidatzen dogu. Azkenengo zatian, aurreko Osoko Bilkuraren interpretazioaren ondoren aurkeztutako mozinoaren muinerako baliagarri izan diran laburpen eta ondorio batzuk batzen dituan atal bat dauka.

Gure taldeak txosten honetan jasotako ondorio batzuk partekatzea gurako geunke, eta Morillok berak ondo zehaztu dauanez, azkenengo hileetan batzorde edo osoko bilkuretan eztabaidatu eta baloratu dira.

Lehenengo eta behin, balioa emoten deusie administrazioek egindako ahaleginari eta zentroetako arduradunek eta langileek erabiltzaileak babesteko eta ondorio negatiboak gitxituteko egiten daben ahaleginari. Era berean, jasoten dau beste azterlan batzukaz konparatuta egiaztatu daitekela Euskadin izandako eragina beste herrialde batzuetan izandakoaren antzekoa izan dala, eta, gainera, jasoten dau detekzio-tasa beharbada hobea izan dala Euskadin. Infekzio-arriskua egoitza-zentroaren eta dagoan eremuaren ezaugarrien arabera izan da, eta ez zentroaren jabetzari edo kudeaketari lotutako elementuen arabera. Eta, azkenik, hilkortasun-arriskua, funtsean, baldintza personaletatik eratortzen da, eta ez antolakuntza- eta asistentzia-praktiketarik.

Elkarrekin Bizkaiak hasieran aurkeztutako mozinoak hobekuntza-neurri batzuk jasoten ditu, txosten horretako gomendioetan oinarrituta. Eta guk, Euskal Sozialistak taldeagaz batera, zuzenketan egin doguz Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumenetara eta Aldundiak berak honezkero abian jarri dauen zainketen trantsizino-eredura hobeto egokitzeke.

Urrats garrantzitsuak eta aurrerapausoak egin dira egoitzak bizikidetzatza-unidade txikiak bihurtzeko bidean. Aldaketa hori honezkero zuzenketan, 119/2021 Foru Dekretuan, jasoten dan araudian gauzatu da, baita kontzertazioan bertan eta egoitza-zentroei etengabeko laguntza emoteko lanean be, arkitektura hutsetik harago doan eredu horretara igaroteko.

Zentro agregatu guztietan komunak diran elementu zehatzakaz informazioa emoten eta argitaratzen aurrera egiteak aukerea emongo deusku informazio-sistemak hobetzen jarraitzeko gizarte-zerbitzuen eta euren interpretagarritasunaren eremuan.

Bizikidetzatza-unidadeen artikulazioa arautzen dauen Foru Dekretuaren 4. eta 5. artikulua erakundearen eta bizikidetzatza-unidadearen autodiagnostikoa edo autoebaluazioa jasoten dau, eta Aldundiari berari baimena emoten deutso Dekretuan bertan jasotako aurreikuspenen betetze-mailaren jarraipena egiteko. Esparru horretan eskatzen dogu diagnostiko-test bat egitea, jarraipen- eta kontrol-txostenak jasotea ahalbidetuko dauen arretaren aurrerapena kuantifikatzea ahalbidetuko daben adierazleakaz.

Profesionalen egonkortasuna alderdi garrantzitsua da Aldundia bultzatzen dabilen bizikidetza-unidadeen norabidean, eta egoitza-ereduan. Ez hainbeste birusari eusten laguntzeko, Arartekoak jasoten dauan moduan, ezpada etorkizunean egoitza-zentroetan bizi diran personei arreta personalizatua emoteko. Araudiak berak 9. artikuluan xedatzen dauenez, langileak txandakatzea eragozteko behar diran mekanismoak artikulatuko dira, egoiliarrek ezagutzea eta orientatzea errazteko helburuagaz.

Gainera, egoitza-zerbitzu foralaren prestazinoa hitzartzeko deialdian bertan, erakundeen betebeharren artean sartzen da zentroari atxikitako plantillaren ehuneko bat mugagabeko kontratuagaz enplegatu eta egiaztatzea. Euskal Autonomia Erkidegoan adinekoentzako egoitza-zentroei buruzko dekretua berrikusten dabil Eusko Jaurlaritza, bere partaidetza-prozesu propioagaz, eta aukera emoten deusku Eusko Jaurlaritzari eskatzeko balioetsi daiala bizikidetza-unidade bakoitzeko ratioa ezartzea 39. artikuluan aurreikusitakotik harago, bai eta kontingentzia-planak sartzea be agente infekzioso komunuen aurrean eta Covid-19aren aurrean egoitza-zentroek izan beharreko dokumentazioaren artean, a posteriori ikuskatu ahal izateko.

Diputatuaren beraren berbetan, azkenik, Bizkaiko esku-hartze sozialeko etika-batzordeak Aldundiagaz hur-hurretik behar egin dau, egoiliarren ongizatea jagoteko funtsezko alderdi etikoei aurre egiteko erantzuna emonaz, pandemiak ekarri dauen erronka handi honen aurrean; izan be, lan hori ezinbestekoa da eskubideak babesteko, eta, gure ustez, une honetan indartu egin daiteke, egoitza-eremuko zaintzak etikaren ikuspegitik hobetzeko bultzatu behar diran tresnen inguruko jardunaldi zientifikoak sustatuz.

Eskerrak emon gura deusguz Fernandez jaunari gure zuzenketako zehaztasunak onartzeagaitik. Gaur taldeei aurkezten deutsegun erdibidekoan, 1. puntuan, informazioa eskuratzeari jagokonean, egoiliarrei buruzko informazio-sistemetan be aurrera egitea sartu dogu, eta, holan Arartekoak ildo horretan egindako gomendioa be geureganatu dogu. Espero daigun ganbera honek aho batez onartzea, esan dodan moduan, gure bizitegi-eredua hobetzeko asmoz, Arartekoaren txosteneko gomendioak gure egitea dakarrelako. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Urquieta Zuzeta. Tiene la palabra la señora Martínez Fernández, del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia.

La Sra. **MARTÍNEZ FERNÁNDEZ** andreak: Eskerrik asko mahaiburu andrea. Talde Popularrak transakzio-zuzenketa honen alde egingo dau. Gure ustez, Arartekoak egindako txostena oso garrantzitsua da. Egia da hilabete batzuetan oso egoera gatxean egon garala, eta, nire ustez, gure sistemaren barruan oraindino hobetzeko dagozan gauzei buruzko lagin asko emoten ditu. Gai batzuk aztertu ahal izan ditu, txostenak berak dinoanez, eta hobetu daitekeena zer dan adierazi dau. Beste batzuk ostera, esan dogun moduan, dokumentaziorik ez euen langileen ratioen gaia, adibidez, ezin izan dira aztertu.

Gure ustez, taula horretan infekzio-arrisku handiagoagaz lotzen diran faktoreak aipatzen dituanen, jorratu beharreko gaiei buruzko zenbait ohar emoten ditu, pandemian zehar ikusi ahal izan diran defizit guztiak hobetu ahal izateko.

Lehen be aitatu dogu, daukagun erakundearteko sarearen barruan, beste administrazio publiko batzuen garaien menpe egonda, guk uste dogu Bizkaitik aurrera egiten jarraitu behar dogula bizikidetza-unidadeak hobetzen, eta, jakina, unidadeok hobetzeko egiten dan edozer ondo egingo dala.

Barrero dinogu, oso ondo dago Arartekoaren neurriak ikustea, horretan sakontzen jarraitzeko aukera eukiko dogu, oso ondo dago akordio bat egotea, garrantzitsua dala uste dot. Baina egon beharko dogu, edo erne egongo gara, arduradunek gaur hemen ganbera honetan sinatzen diran akordio guztiak bete daiezan. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señora Martínez Fernández. Tiene la palabra la representante del grupo EH Bildu, señora Duque Santacoloma.

La Sra. **DUQUE SANTACOLOMA** andreak: Buenos días a todos y todas.

En el pleno de hoy se alcanzarán dos acuerdos entre los grupos de la oposición y los grupos del gobierno. Ambos acuerdos giran en torno a las políticas de cuidados.

Estos días, la Ley de Educación está en medio del debate mediático, social y parlamentario. Al margen de las diferencias que defiende cada partido, hay un diagnóstico compartido y una voluntad expresa de llegar a un acuerdo amplio, ya que la educación es un tema estratégico. El lehendakari Urkullu lo ha definido como un reto de país.

En más de una ocasión hemos dicho que nuestro sistema de protección social y nuestras políticas de cuidados son también un reto al que debemos hacer frente como sociedad, un reto de país, como decía el Lehendakari.

Y sinceramente creo que también podemos llegar a un consenso en el diagnóstico de esta cuestión, a pesar de las diferencias que tenemos para afrontar este reto. Por eso, a día de hoy, oposición y gobierno han alcanzado un acuerdo sobre la red residencial para personas mayores. Porque somos conscientes de la necesidad de llegar a acuerdos en un tema estratégico para nuestro país.

Puedo hacer diferentes lecturas. Puedo decir que la oposición ha conseguido mover al gobierno. Pero creo que la lectura más rigurosa sería decir que la sociedad nos mueve a todos hacia el acuerdo.

Y los acuerdos de hoy son buenos, pero no suficientes. Tenemos que tener muy en cuenta el contexto en el que estamos. De dónde venimos y dónde estamos hoy.

La crisis del COVID-19 ha puesto de manifiesto dos cosas: que es la vida misma la que está en crisis y que la vida la tenemos que cuidar entre todos. Sin embargo, esta crisis es previa a la pandemia del Covid-19.

Nos acercamos al 8 de marzo y tenemos que recordar que el movimiento feminista lleva años diciendo y nos volverá a recordar que el 8, vivimos una crisis de cuidados. Con el Coronavirus ha quedado claro que lo que está en juego es la vida y ha salido a la luz lo que antes era invisible: los cuidados. En definitiva, son estos trabajos los que permiten mantener la vida.

Y me refiero a ese contexto, es decir, de dónde venimos. En 2017, Bizkaia vivió una de las huelgas más largas de su historia en las residencias para mayores. Tras 378 días de huelga, los trabajadores alcanzaron un acuerdo con la patronal para dignificar sus condiciones laborales. Debido a un largo conflicto laboral, y aprovechando los meses de verano, el Gobierno Vasco aprobó el pasado 31 de julio un nuevo decreto que establece los requisitos materiales, funcionales y de personal a aplicar en los centros residenciales. La mayoría sindical

vasca coincide a la hora de señalar que este decreto sigue prescindiendo del cuidado de nuestros mayores, al acortar el tiempo de cuidado establecido para cada residente.

En noviembre de 2020, el Parlamento Vasco aprobó una moción para instar al Gobierno Vasco a revisar y modificar el decreto sobre centros residenciales para personas mayores.

Y estos días, tras una huelga histórica y más de un año sin cumplir el acuerdo parlamentario de revisión del decreto de residencias, los trabajadores han vuelto a la huelga para reclamar una mejora de sus condiciones laborales.

En varias concentraciones, los sindicatos ELA, LAB, UGT y CCOO han pedido a la Diputación de Bizkaia que renueve el convenio para mejorar las condiciones laborales de los 5.000 trabajadores de las residencias.

Este es el contexto. Estamos ante un reto de país y hemos llegado a un diagnóstico compartido entre sindicatos, partidos de la oposición, partidos de gobierno y otros agentes implicados. El sistema residencial y las políticas de cuidados deben ser revisados, necesitamos un pacto de país de cuidados.

Por todo ello, valoramos positivamente el acuerdo alcanzado hoy entre Elkarrekin Bizkaia, PNV y PSE y apoyaremos la propuesta. Pero insistimos en que no es suficiente y que este reto requiere pasos más audaces. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted señora Duque Santacoloma. Pasamos al turno de respuesta. Tiene la palabra el representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señor Fernández Medrano.

El Sr. **FERNÁNDEZ MEDRANO** jaunak: Gracias señora presidenta, buenos días otra vez. Ezer baino lehen, aurreko azken gaia fintzearren, ez nago ohituta Foru Gobernuari eusten deusien taldeek ni zuzentzera. Orduan, dinamiketan uste dot azkenengo puntua arindu egin dala apur bat, Aldundiak sustatutako jardunaldiakaz zerikusia daukana, gai etikoei buruzkoa. Balorazino hori gehitu eta amaitu dot.

Bizitegi-eremuko zainketak hobetzeko tresnen inguruko jardunaldiak lantzea edo egitea etikaren ikuspegitik, nire ustez, hainbat gairen inguruko erretorika uxatzen laguntzeko espazioa be izan daiteke, kasurako bizikidetzaren unidateen gaia; eta baita gizatasun-giltzak emotenko bizileku-mundua bezalako argi-ilunen munduan. Izan be, batzuetan, persona nagusiak jagoten dabenak destajoan behar egitea korapilotu egiten da beste hainbat arrazoigaitik. Uste dot Aldundiak eta Bizkaiko Esku-hartze Sozialerako Etika Batzordeak sustatutako jardunaldiak ez dirala gaur hemen onartuko dogun mozino honen puntu txikiago bat, eta uste dot balioa emon behar jakola. Horregaitik hartuko dot une bat horretaz berba egiteko.

Lehenengo eta behin, eskerrak emon gura deusedaz Alderdi Popularreko eta EH Bilduko batzarkideei babesa emotearren, ez bakarrik aldeko botoagaitik, baita erabat onartuko ditugun balorazinoakaitik be.

Beste alde batetik, eta gaur danok bozkatu behar dogula kontuan hartuta, beste behin be adostasun apur bat, uste dogu Herriaren Defensarako Erakundearen azterlan baten oinarritutako holako mozino bat ezin dala izan gure programa politikoak markatzeko edo txertatzeko gune bat. Uste dot halakoen planteamentu maximalistek ez dabela bape laguntzen alkarrizketa, eta gitxiago akordioak lortzeko orduan. Nire ustez, mozino eratorri honen ibilbidea irakurten dauenak ondo baino hobeto jakingo dau Elkarrekin Bizkaia transakzino-mozino

honetan zeri uko egin deutsan. Baina, beste alde batetik, eta aldi berean, argi geratzen da Foru Gobernuari eusten deutsiez alderdiek zer aitortzen daben transakzino hau sinatzean.

Edozelan be, konpromisoa beti da alkarri uko egitea be. Eta uste dot akordio apala dala, baina gai esanguratsuei buruzkoa. Orduan, akordioa be ondo etorria.

EH Bilduk eskatuta Arartekoa txostena azaltzera etorriko dan gaiari buruzko hausnarketa. Hori negoziatzinoan eta beste leku batzuetan atera da. Argi dago mozinoa gaur eztabaidatzeko interesa datorrela txostena, 237 orrialdekoa, hor dagoalako. Gure ustez, Arartekoak interpretazinarako erespideak emon ahal deuskuz, edo gauzak argitu, baina txostena hor dago, eta testu horretan oinarritu dogu lana. Besterik ez.

Gure ustez, bere garaian Gizarte Ekintzako diputaduagaz eztabaidatu neban moduan, zenbait alderdiren garrantzia handiago edo txikiagoari buruzko interpelazinoan, Arartekoaren argibideek desadostasun horreek kokatzeko be balioko dabela. Orain ezin dot eztabaidatu titulartasunak daukan edo ez daukan garrantziaz. Dana dala, guztiok eukiko dogu Arartekoari galderak egiteko aukerea, eta argitu egingo deuskuz.

Gaur hemen egin dogun lana jarraitzeko unea izan daitekeela uste dot. Mozino honetan txertatzeko gai izan ez garan beste alderdi batzuk be aurrera eraman ahal izango dira agerraldia egin eta ostean. Espero daigun, barriro be, hau bezalako ahobatezko akordioak aurkitzeko gunee bat izatea.

Edozein kasutan, Elkarrekin Podemos IUk uste dau akordio hori serio hartu ezkerre, lehen esan dodan moduan, gardentasuna, kontrola, ratioak, segurtasuna eta duintasuna ekarri leikezala egoitzetara hurrengo garaietan, eta espero daigun halan izatea. Eskerrik asko guztioi.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Fernández Medrano. Tiene la palabra la representante del Grupo Socialistas Vascos, señora Campo Prieto.

La Sra. **CAMPO PRIETO** andreak: Gracias de nuevo. Guk ere balioa emoten deutsagu gaurko akordioari. Hartu ditugun konpromisoak garrantzitsuak dira. Aurrera egin dogu, urrats guztiak, txikiak izanda be, garrantzitsuak dira. Gure erantzukizun politikoak beti behartzen gaitu pausoak egitera, baina gehiago gaurkoa moduko gai sentiberetan, gure adinekoren eskubideei eta ongizateari buruz berba egiten dogunean.

Helburua bat da danontzat, halan adierazi dogu danok gaur, eta horrek ahaleginak batzera behartzen gaitu, praktikoagoak izateko; ezinbestekoa da preminazko aldaketak egiteko aurrera egiten jarraitzea.

Alde logiko eta legitimoetatik eta joko politikitik harago, akordioa beharrezkoa da aurrera egiteko eta behar diran aldaketak eragiteko, pauso txikiak emonaz bada be. Gaur danok maila emon dogula uste dot, eta nire taldean horregaz geratu gara. Sakondu egin dogu sakoneko aldaketa horretan aurrera egiten jarraitzeko. Aurrera egin dogu informazino gehiago lortzeko, beraz, gardentasuna lortzeko, arreta hobe emoteko eta, ondorioz, zerbitzuen kalidatea hobetzeko, eta gure egoitzetan bizi diran eta biziko diran adinekoei babes eta duintasun handiagoa emoteko. Pausoz pauso, baina guztion artean aurrera egingez. Besterik ez. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señora Campo Prieto. Tiene la palabra la representante del Grupo Nacionalistas Vascos, señora Urquieta Zuzaeta.

La Sra. **URQUIETA ZUZAETA** andreak: Sí, gracias de nuevo. Sobre este punto vendrá el Ararteko, como ya se ha comentado, a las Juntas Generales para explicar el sentido de la ponencia. No sé si esto provocará otro tipo de lectura del informe o no a alguien, pero tendremos la oportunidad de volver a discutir. Pero al menos los acuerdos adoptados hoy en esta cámara son un paso adelante, ambos conseguidos antes, y que ahora tomaremos también. Teniendo en cuenta la trayectoria de la Diputación en torno a los cuidados, teniendo en cuenta las competencias y la normativa de la propia Diputación, y cómo no, teniendo en cuenta las competencias y la normativa de gobierno. Ese es el marco de trabajo que todos tenemos y ese es el valor del acuerdo de hoy, dar pasos de mejora utilizando las herramientas que tenemos. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señora Urquieta Zuzaeta. Tiene la palabra la representante del Grupo Especial Partido Popular, señora Martínez Fernández.

La Sra. **MARTÍNEZ FERNÁNDEZ** andreak: Eskerrik asko mahaiburu andrea. Hain zuzen be, Arartekoaren agerraldia falta dogu. Segurutik, txostenaren ganean sakondu ahal izango dogu, gai oso garrantzitsuak daukaz eta.

Nik uste dot azkenean ez dala ezer gertatzen. Zerbait frogatu bada, edo azkenengo urte biotan frogatu bada, pandemiaren aurka borrokatzeko egunez egun aurrera egin behar dala da, zorionez gero eta gauza gehiago ezagutzen dirala, eta egunetik egunera hobetzen joan gaitkezala. Eztabaida honetatik edo Arartekoaren agerraldi horretatik Bizkaitik eskaintzen dan asistentzia-kalidatea hobetzen jarraitzeko neurri barriak bultzatu bageinkez, ondo etorria izan daitela.

Eta barrero dinot, nik uste dot ez dala ezer gertatzen gaur hemen akordio batera heltzearren, espero daigun, denporeagaz Arartekoak agerraldi horretan esango deuskunaren mesedetan hartu beharreko beste neurri batzuk badagoz, ondo etorriak izango dirala.

Azkenean, nik uste dot argi dagoala gure sisteman gabezia asko egozala, eta, nire ustez, argi dago Bizkaiko gizarte osoaren gogoetan dagoala gure adinekoentzako daukagun asistentzia-kalidatea hobetzea. Eurei zor deutsegun guztia agirikoa dala uste dot, eta barrero dinot, administrazioek ahalegin handia egin arren, oraindik gitxi izango dala gizarte gisa zor deutsegunerako. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señora Martínez Fernández. La representante del grupo de Euskal Herria Bildu, Duque Santacoloma, no participará.

Concluido, pues, el debate, estamos en condiciones de votar, pero esperaremos a que todos estemos sentados. Por tanto, someteremos a votación la transaccional, y los votos a favor, no hay votos en contra, y no hay abstenciones.

Por lo tanto, tal y como se ha anunciado, se han emitido 49 votos, y han sido favorables 49. Por lo tanto, se aprueba por unanimidad la transaccional.

Y el sexto punto del orden del día.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

6.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Moción derivada de Interpelación ([R.E.11/E/2022/0000168](#))

Autor: Arriola Alzola, Iratxe (EHB)

Asunto: El impulso de los sistemas locales de alimentación.

Documento **Principal:**
([R.E.11/E/2022/0000168](#))

Boletines: [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas](#) (49A)

Expediente: ([11/B/20/0003114](#))

6.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itaunetik eratorritako Mozinoa ([11/E/2022/0000168SE](#))

Egilea: Arriola Alzola, Iratxe (EHB)

Gaia: Elikadura sistema lokalak sustatzea

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2022/0000168SE](#))

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (49A)

Espedientea: ([11/B/20/0003114](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Turno para la juntera que presenta la iniciativa, por lo que la señora Arriola Alzola tiene la palabra.

La Sra. **ARRIOLA ALZOLA** andreak: Gracias señora presidenta. Buenos días a todos. En primer lugar, decir que hemos acordado una transaccional con Elkarrekin Bizkaia y el señor Xabier Benito explicará los dos puntos añadidos en relación a la promoción de sistemas locales de alimentación.

Los sistemas locales de alimentación consisten en el fomento de la producción y consumo responsable de productos locales, así como en el refuerzo de circuitos cortos de comercialización. Combina la mirada de los baserritarras con la de los consumidores. El acceso a la población de alimentos sanos, nutritivos, asequibles, accesibles llegará no solo por el cambio de modelo de producción, sino también por el cambio en los modelos de consumo.

Y eso es lo que planteamos en la moción, que es integral, tiene muchos puntos, pero el tema es integral y requiere una visión holística a la hora de tratarlo. Es evidente que esto puede generar empleos verdes y promover un oficio digno para los baserritarras. Lo que hoy no tienen. Está totalmente alineado con el objetivo de enfriar el planeta y ofrecer alimentos de calidad a los consumidores. Por lo tanto, responde al principal reto que tenemos por delante: la emergencia climática y el reto demográfico de las zonas rurales.

Citaré dos informes para ver cómo los datos indican que la situación del sector primario aquí es mala. Uno es el publicado por el consejo agroalimentario ecológico de Euskadi y Biolur en enero de 2020, en el que se afirma, por ejemplo, que siete de cada diez baserritarras perciben un salario a jornada completa de entre 800 y 1.200 euros en términos salariales. En cuanto a los objetivos personales, de cara a los baserritarras, se señala que su principal objetivo es, sobre todo, mejorar las condiciones de trabajo, especialmente en lo que se refiere a dedicación, vacaciones y salarios. Y entre las debilidades alude a la necesidad de ajustar los precios para la viabilidad económica, a la dificultad para atraer nuevos clientes, a las dificultades para la gestión colectiva. Las conclusiones, por tanto, son que las condiciones de

trabajo son precarias; por un lado, la imposibilidad de acceder a los salarios mínimos, y que la gestión de las horas libres y vacacionales es muy mala; y por otro, este informe alude a la necesidad de trabajar para poner en valor el sector. Y que esto puede servir para poner precios adecuados y dignos a la producción.

Citaré otro informe, éste del año 2022, de Cerai, Centro de estudios rurales y agricultura internacional. Y dice: «Egitasmo agraekologien bideragarritasun ekonomikoa ezinbestekoa da denporan eusteko lan-nitxoa izan daitezana». También dice: «Produktuaren eraldaketa laborantzari lotuta balio erantsia da eta hori merkatu-nitxoa dagoala adierazten dau». Y para terminar también: «Banaketa taldeka edo alkarregaz egitea da gaur egun bideragarri ikusten dan aukera bakarra». El informe menciona «arazoa dala landari buruz legeak egiten dabezanek ez daukiela idearik be landari buruz, ez landan bizitzeari buruz, ez han lan egiteari buruz». Esto debería llevarnos a una reflexión también en esta Cámara.

Además, en el pleno de control, a la hora de preguntar por las medidas económicas, fiscales y programáticas para la promoción de los sistemas locales de alimentación, la señora Antxustegi mencionó dos proyectos, uno Kaiku verde y otro Belardi. Nos gustaría saber cómo se ha trasladado esa ayuda en términos económicos. Esto no quedó claro en la respuesta a la pregunta, pero en cuanto a la transformación de la leche, además de Kaiku Berdea, existe otro proyecto en Bizkaia en Karrantza que se transforma en las antiguas instalaciones de Iparlat procedente de la ganadería familiar y que no reciben ninguna ayuda económica por parte de la Diputación Foral de Bizkaia.

Este es el primer punto de la moción: es decir, en otros proyectos existentes para la transformación de la leche, o no marginar los proyectos, y apoyar también la diversificación de la agricultura familiar.

El segundo punto es el proyecto Belardi. Se mencionó en la respuesta que se apoyaba entre los proyectos de interés. ¿Qué tipo de ayuda? Si es moral no lo sabemos, pero ayuda económica no han recibido en sus casas. Por lo tanto, en el segundo punto solicitamos la ayuda económica a proyectos de transformación cárnica de este tipo.

También mencionó, señora Antxustegi, una dotación económica especial de 1.100.000 euros para amortiguar los costes que han tenido las materias primas, y en el tercer punto solicitamos que se analicen bien las condiciones de la futura línea subvencional, sobre todo para no excluir la agricultura familiar diversificada, agroecológica. Porque eso ocurrió con la línea de subvenciones que sacaron en la época de Covid, y comentamos qué casos. Por ejemplo, en el módulo de pollos, se publicó que para la ayuda era necesario tener un mínimo más de 1.000 cabezas, ¿y qué pasa con los que practican un modelo diversificado? 900 gallinas con sus 4.000 metros cuadrados de huerta y tal vez hacer pan. Estos quedaron descartados. Para que eso no suceda, hemos añadido eso en el tercer punto.

En el punto 4, qué decimos. También mencionamos, señora Antxustegi, el esfuerzo de la Diputación Foral de Bizkaia por introducir productos locales en comedores escolares. Y sería mejor si fuera así, sobre todo ahora que Educación ha abierto la puerta a introducir productos locales. Y eso requiere mucho trabajo: hay que adaptar los menús a los productos de temporada y a los locales, a los precios y todo eso; requiere buscar proveedores; y adecuar las infraestructuras, unas veces en las cocinas otras en las granjas de los baserritarras.

Por ello, en el punto cuarto solicitamos que la Diputación Foral de Bizkaia haga un convenio con los ayuntamientos, o con las comunidades escolares, para que cuando quieran introducir productos locales, etc., puedan poner todos los medios necesarios.

Y finalmente decir que, entre sus competencias, la Diputación tiene más que hacer, por ejemplo, revitalizar el fondo de suelo. Ese es el quinto punto. El sexto es

profundizar en el tema de los circuitos en la formación directa o indirecta, la formación en gestiones económicas, la agroecología y la transformación artesanal. El séptimo es la presencia de proyectos de promoción de sistemas locales de alimentación en los planes de ayudas que elabora la Diputación Foral de Bizkaia y la finalización de la dotación económica.

Y luego hay tres puntos más: el octavo que la Diputación cree la red de puntos de distribución de los grupos de consumo: dotado de locales, equipamiento y de personal. Novena. Creación de un sistema público de procesamiento y distribución de alimentos agrícolas locales y de temporada. Y diez y último, establecer una línea de ayuda directa para compensar a los agricultores hasta llegar al salario mínimo interprofesional, ponderando la jornada efectiva para que no tengan que trabajar más de 40 horas semanales. Nada más, gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Arriola Alzola. El grupo Elkarrekin Bizkaia presentó una enmienda. Por ello, a continuación, tiene la palabra el señor Benito Ziluaga.

El Sr. **BENITO ZILUAGA** jaunak: Eskerrik asko mahaiburu andrea. Euskal Herria Bildu taldeak lehen sektoreari buruz egindako proposamen bat eztabaidatuko dogu gaur, tokiko elikadura-sistemak bultzatzeari buruzkoa, hain zuzen be. Eztabaida hori interesgarria eta egokia iruditu jaku hasieratik.

Zoritxarrez, lehenengo sektorea atzerakada doa gaur egun Bizkaian, eta beste esparru batzuetan be Bizkaiari erreparauko deusagu, bai enplegu kopuruan, bai sektore horrek BPGan daukan ehunekoan. Atzeraka doan errealidade horregaz kontrastean, kontuan izan behar dogu funtsezko sektorea dala, estrategikoa be esan geinke.

Lehenengo, jaten emoten deuskulako, ez gehiago ez gitxiago; eta, bigarren, bere papera funtsezkoa dalako helburu klimatikoak lortzeko. Adibidez, trantsizino ekologikorako Ministerioaren arabera, nekazaritzak eta abeltzaintzak berotegi-efektuko gasen isurketen % 11,6 eragiten dabe Estaduan. Horrek gainerako sektoreen oso azpitik jartzen dau. Eta, gainera, Ministerioak berak gaineratu dau lehenengo sektoreak kudeatutako lurzoruek sektore horrek eragiten dituan isurketen guztizkoaren ia kopuru bera biltegitzen dabela.

Errealidade hori gorabehera, eta klima-aldaketaren aurkako borrokarako garrantzi hori izan arren, ezin dogu tranparik egin; izan be, hainbat mehatxuk arriskuan jartzen dabe nekazaritza eta abeltzaintza iraunkorraren eredia, hain zuzen be helburuok lortzen laguntzen dauana.

Mehatxuak agronekazaritzaren eta makroabeltzaintzaren lehia desleialak eragiten ditu, batez be esportazinora bideratutakoek; eta mehatxuak salmenta-puntuetan be gertatzen dira, prezioak botaten dabezan banaketa-kate handiek, sektoreko profesionalen irabaziak zerora murriztuz kasurik onenean, ze galerak be gertatzen dira.

Baserritarren eta nekazarien ekoizpenen etorkizuna mehatxatzen dauan eredu horren aurrean, elikadura subiranotasunaren eta ekoizpen zirkuitu laburren aldeko apustua egin behar da, argi eta garbi. Baina ekoizpen- eta merkaturatze-zirkuitu labur horreek handitzeko, ustiategi barriak ipinten lagunduko daben politikak bultzatu behar dira, batez be gazteek kudeatutakoak, eta modu askotara lagundu: lurra lortzen lagunduz, laguntza-programakaz, prestakuntzagaz be bai. Hau da, sektorea indartzen joango dan lan zorrotza izan behar dau.

Zentzu horretan, aurkeztu dan mozinoari positiboa eta egokia eretxi deusagu bere puntuetan, eta zuzenketa moduko ekarpen batzuk egin nahi izan ditugu, azkenean

zuzenketa transakzional bat eragin dabenak. Azken puntu biak bakarrik aitatu gura dodaz, horreek sartu doguzalako.

Azkenengotik hasiko naz. Horrek proposatzen dau gaur egun proiektu edo erakunde zehatzei emoten jakezan laguntza modu guztiak modu ekitatiboan heltzea gainerako proiektu edo erakundeetara. Eta hemen lehen sektorean dagoan elefante horri buruz hitz egin nahi dot, inork berba egin gura ez dauen horri buruz, hau da, emoten diran diru-laguntzen ereduari buruz. Izan be, Bizkaiko Foru Aldundiak eta beste euskal erakunde batzuek emoten daben diru-laguntza izendunen eredia, esan beharra dago, egiten daben gauza bakarra klientelismoa eta politizazioa sustatzea da, zentzurik txarrean ulertuta, elkarreana eta proiektuena. Hori ukatu egingo dozue, gorritu zaitekeze baieztapenagaitik, baina holan da eta argi eta garbi esan behar da. Adibide errazen bat jarri geinke, adibidez, foru aurrekontuak begiratzea. Hor, diru-laguntza izendunetan, beti esaten da: X. diru-laguntza emoten jako alkarte edo proiektu honi, bakarra dalako. Eta jakina, diru-laguntza jaso eta etorkizunean jasoko dauen bakarra danez, beste ekitaldi askotarako bakarra izaten jarraituko dau.

Nik uste dot hori arazo larria dala, mahai gainean jarri behar dala eta eten egin behar dala, eta proiektu bat ona bada eta lortu nahi diran helburuak lortzen baditu, orduan laguntza zuzena emon beharko litxakio, matrikulari eta kolore politikoari begiratu barik. Sektoreari lagundu nahi baddeutsagu, sektore osoari lagundu behar deutsagu, eta, bereziki, etorkizun handieneko lehen sektorearen eredia bultzatzen dauenari, agroekologia eta baserritar eta nekazari ekoizpenak bultzatzen dituenari eta elikadura burujabetzaren alde lan egiten dauenari.

Bigarren, hamaikagarren puntuan, proposatzen dogu Bizkaiko Foru Aldundiak bere esku dagoan guztia egitea elikatze-katearen funtzionamentua hobetzeko neurriei buruzko 16/2021 Legea aplikau daiten, eta, holan, profesionalek ekoizpen-kostuen gainetik dagoan prezio justua jasotea bermatzen da.

Mozino horretatik datorren interpelazinoan, diputaduak lehengaien prezioen igoera handiari, energiaren prezioari eta merkatuen ezegonkortasunari aurre egiteko laguntzak aitatu zituan. Gu, jakina, diru-laguntza horrekaz ados gagoz, nahizta banaketa hobetu behar dan, mozino honek proposatzen dauen moduan. Baina ez dogu ahaztu behar horretarako urtenbiderik eraginkorrena bidezko prezioak bermatzea dala. Dakizueenez, Estaduko koalizino-gobernuak elikadura-katearen lege hau onartu barri dau, sektorearen aldarrikapenak eta Europaren eskakizunak barne hartzen dituana, galera-salmentak galarazoteko.

Kontuan izan behar da lege honen aplikazioa gatxa dala, halan da. Baina, era berean, sektoreak berak aldarrikatzen dau. Horregaitik iruditzen jaku egokia Bizkaiko Foru Aldundiaren inplikazioa lan hori errazteko.

Amaitu egingo dot. Horreek dira gure ekarpenak, mozinoak barne hartzen dituan gainerako puntuakaz batera, nahizta aitatu ez, baina logikoa danez, % 100ean bat gatoz. Halanda be, joan baino lehen, eskerrak emon gura deutsadaz Arriola andreari akordiorako prestutasunagaitik, nahizta guk denpora gitxigaz aurkeztu zuzenketa. Eta besterik ez, eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Benito Ziluaga. Tiene la palabra el representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, señor Andrade Aurrecoechea.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Eskerrik asko mahaiburu andrea. Alderdi Popularra bat dator, jakina, Bizkaiko nekazaritzaren eta abeltzaintzaren egoera

larriagaz, eta zuzenketa aurkeztu dauenak esan dauen moduan, gure lurraldean lehenengo sektoreak daukan atzerakada larriagaz. Esku-hartzeetako baten, lehenengo sektoreak Bizkaian, Euskal Herrian eta Espainian dituan mehatxu larriez hitz egin da. Uste dot mehatxu larri bi ahaztu dabezala.

Proposamen honetan aitatzten dan haragi-sektorean, adibidez, Garzon ministroak haragiaren aurkako erasoari buruz egindako adierazpenak baztertzea falta da. Izan be, aurrekoan esan nebenez, haragiari erasotzen jakonean, Bizkaiko, Espainiako eta Euskal Herriko haragiari erasotzen jako.

Eta otsoa espezie babestu izendatzea, gure abeltzainei gure aziendak estensiboan eukitea eragozten deusie-eta, eta guztiak dana intensiboan izatera behartuko ditu-eta. Hori falta da hemen, zuzenketa honetan, ez da agertzen.

Nekazaritza dala-ta, materialen ekoizpenaren kostuak arindu beharra aitatzten da proposamenean. Jakina, 6,1eko inflazioagaz, elektrizitatea % 46 igonda, diesela % 25, gasolina % 23, pentsuak igon dira, ongariak igon dira; beraz, benetan egin beharko litzatekena da norabide horretara erooten gaituan gobernua aldatu. Kostuen igoera hori, dieselaren norabide hori, gasolina, zuek Madrilen babesten dozuen gobernuak eragiten ditu. Orduan, proposamen honetan hartu beharko litzatekeen lehenengo neurria Madrildik hain txarto kudeatzen gaituen gobernua kentzea izango litzateke, eta herria aurreran eroango dauen eta nekazaritza eta abeltzaintza benetan hobetuko dituan beste gobernu bat bultzatzea.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Perdón, señor Andrade Aurrecoetxea. El señor Otermin Eraso, perdone. Otermin Eraso jaunak hitza eskatu deust.

El Sr. **OTERMIN ERASO** jaunak: Ezin da holako eztabaidarik erabili berari ez jagokon ganbera baten, hemen ordezkatuta ez dagoan eta eztabaidarako arrazoi ez dan gobernu bati buruzko balorazioak egiteko. Beraz, nik uste dot Andrade jauna bere bozeramaile lanetik urrun joan dala, eta kargu hartu gura deusat horregaitik. Besterik ez eta eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señor Otermin Eraso, yo al señor Andrade Aurrecoechea. Andrade Aurrecoechea jauna, mesedez eskatuko deusut eztabaidako gaiari bakarrik jarraitzeko, eskerrik asko.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Eztabaidan dago, izan be, akordio-proposamenetako bat da ekoizpen-kostuak arintzea, eta ekoizpen-kostuak igon egin dira, hain zuzen be, Madrilen gobernua babesten daben proposamengile biek, krisi honetara eta ekoizpen-igoera horreetara eroan gaituelako. Baina hori heldu bitartean, ze helduko da, proposamen zehatzari helduko deusagu.

Laguntza ekonomikoa eta alkarteak, kooperatibak, sortzea eskatzen dozuen proposamenaren zatia babesten dogu, beti be ahaleginak aurrezteko, kostuak aurrezteko, alkarregaz komunikatzeko eta batera merkaturatzeko aukera emoteko. Azken baten, kooperatibismoaren eta asoziazionismoaren abantailak defendatzea, nire ustez oso indibidualista den eta bildu beharko litzatekeen sektore honetan. Proposamenean batzuk aitatzten dira, nire ustez hori guztia ondo dago, eta laguntza hori handitu egin beharko litzateke. Horregaz guztiz bat gatoz.

Era berean, bat gatoz Lurren Funtsa barriro indarrean ipinteko proposamenagaz, Aldundiaren esku dagozan nekazaritza-lurrak gehituta. Proposamenen gazteen eskura bakarrik jartzea proposatzen da. Nik uste dot Ganbera honetan berba egin izan dogula, gazteez gain, 45 urtetik gorako personak edo iraupen luzeko langabeak be badagozala, lur-funts horreek eskuratu leikiezanak, lan egiteko beste modu bat dalako, oso gogorra baina lan egiteko modu bat, eta urtenbide bat izan daiteke. Nik uste dot hitz egin dogula Ganbera honetan, eta proposamenen gazteei buruz bakarrik hitz egiten dala, baina uste dut gabezia bat dala.

Proposamenak dinoanez, agroekologiari, zirkuitu laburrei eta, funtsean, seigarren puntuan planteatzen danari prestakuntza eta aholkularitza emoteko beharra be partekatzen dogu.

Halanda be, ez gatoz bat beste puntu batzukaz: 4, 7, 8, 9, 10. Orokorrean, salmentari zuzeneko laguntza emoten deutsienak. Ez gatoz bat zuek dinozuen puntu bategaz, adibidez, Aldundiak kontsumo-taldeen banaketa-puntuaren sare bat sortzea lokalez, ekipamenduz eta langilez hornituta. Nire ustez, horregaz zera esan nahi dozuela: Aldundiak nekazaritzako produktuak saltzeko establezimenduak ipintea, Aldundiak ipintea. Ni ez nago ados, gu ez gatoz bat Aldundiak nekazaritzako produktuak saltzeko dendak jartzeagaz, proposamena guztiz errespetatuz, baina ez gatoz bat.

Era berean, ez dogu proposamena ulertzen esaten danean Aldundiak nekazaritzako elikagaiak eraldatzeko eta banatzeko sistema publiko bat sortu daijala. Aldundiak banatzeko logistika-enpresa bat ipintea esan gura dala ulertzen dot, berak banatzeko. Nik uste dot hori alkartegintzatik urten beharko litzatekeela, kooperatibismotik, eta ez Aldundiak dendak edo logistika-enpresa bat ipintea. Hori ez dogu partekatzen.

Eta ezta nekazariak gitxieneko soldatara heltzeko konpentsatzeko zuzeneko laguntzakaz be. Ezin da gitxieneko soldata igon, eta gero zergakaz gitxieneko soldatara heltzen ez dan jenteari ordaindu. Ez gatoz bat alderdi horregaz, eta, izatekotan, mundu guztiari emon beharko litzakio, ez nekazariei bakarrik. Jente asko ez da gitxieneko soldatara heltzen. Laguntzak eskainiko balira, eta gu ez gatoz bat, herrialde honetako langile guztiei emon beharko litzakie.

Beraz, zure proposamenaren zati batzukaz bat gatoz, lehenengo zatiagaz, esan deutsudan moduan. Beste aldeagaz ez, eta, beraz, abstenitu egingo gara zure proposamenen. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señor Andrade Aurrecochea. Tiene la palabra el representante del Grupo Socialistas Vascos, señor Ortiz Zaballa.

El Sr. **ORTIZ ZABALLA** jaunak: Gracias, señora presidenta. Buenos días a todos. Interpelaziotik eratorritako mozino hau daukagu, Euskal Herria Bildu taldeak proposatuta eta Elkarrekin Bizkaiak zuzenduta, elikadura sistema lokalen sustapenaren inguruan. Ba, euskal sozialistok egin nahi dogun lehenengo gauza da Bizkaiko lehen sektoreari, nekazariei, abeltzainei eta arrantzaleei gure babesa adieraztea da. Baina gure laguntza ez dira berba hutsak, ekintzak dira.

Alde batetik, pandemia bete-betearen egoala, Aldundiak preminazko hainbat neurri hartu zituan Bizkaia Aurrera programaren bidez. Tokiko ekoizleei laguntzeko balio izan daben talka-neurriak.

Bigarren, Espainiako Gobernuak otsailaren 25eko 5/2020 Errege Dekretua onartu eban, nekazaritzaren eta elikaduraren arloan oso neurri garrantzitsuak hartzen dituna, eta Bizkaiari be eragiten deusana. Besteak beste, kontratuetako klausula baten sartu behar da ekoizlearen eta eroslearen artean hitzartutako prezioak ekoizpen-kostuak estaltzen dituala; eta, bigarren, galarazota dago katean zehar balioa suntsitzea; horretarako, operadore bakotzak ekoizpen-kostuaren prezio bera edo handiagoa ordaindu beharko deutso aurrekoari.

Hirugarren, Espainiako Gobernuak PERTE onartu barri dau, mila milioi euro baino gehiagoko inbertsino publikoagaz, barriro dinot, mila milioi euro baino gehiagogaz. Eta zer da PERTE? PERTE nekazaritzako elikagaien sektorea suspertzeko eta ekonomikoki eraldatzeko proiektu estrategikoa da, hazkunde ekonomiko iraunkorra eraldatzeko, bultzatzeko eta modernizatzeko asmo argiagaz, bai eta digitalizazioa eta lurralde-kohesinoa be. PERTEagaz hainbat helburu bultzatuko dira, baina garrantzitsuenak baino ez ditut azpimarratuko.

Lehenengo eta behin, lehiakortasuna handituko da, nekazaritzako elikagaien sektorearen iraunkortasuna eta segurtasuna bultzatuko dira. Bigarrenik, balio-kateko eragile guztiei egingo deutse mesede, batez be nekazari eta abeltzainei eta euren kooperatibei. Hirugarrenik, landa-ingurunea zerbitzu guztien ardatz egituratzaile bihurtuko da, kasurako garraioarena, sukaldaritzarena eta enpresa laguntzaileena. Laugarrenik, gizarte-kohesinoa bultzatuko da, gazteei eta emakumeei sektorean sartzen lagunduz. Bosgarrenik, nekazaritzako elikagaien sektorea digitalizatzen lagunduko da, Kit digitala programaren bidez, autonomoek eta mikroenpresek prozesuak digitalizau edo online denda bat martxan jarri ahal izan deien. Eta seigarrenik, kalidadeko enplegua sortuko da, batez be landa-ingurunean, eta hori guztia iraunkortasun hirukotxa indartuz: ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa.

Laugarrenik, gogoratu behar dogu European gagozala, eta hor ezartzen dirala Nekazaritza Politika Bateratuaren helburuak 2021-2027 aldirako, eta Bizkaiak bere egin behar dauela. NP Bren helburuak hoeek dira: alde batetik, nekazari bidezko errenta bermatzea; bigarren, lehiakortasuna handitzea; hirugarren, elikatze-katean boterea berrerekatzea; laugarren, klima-aldaketaren aurka jardutea; bosgarren, ingurumena babestea; seigarren, paisaiak eta biodibersidadea babestea; zazpigarren, belaunaldi-erreleboa bultzatzea; zortzigarren, landa-eremu dinamikoak mantentzea; eta azkenik, elikaduraren eta osasunaren kalidadea babestea.

Beraz, Bizkaia ez da uharte bat, lehen sektorearen eta elikadura-sistema lokalen arazoei ikuspegi globaletik heldu behar deutsegu. Alde batetik, Euskadiko gainerako herrialdeak, Espainia eta Europa hartu behar ditugu kontuan; eta, bestetik, sektore horren arazoei heldu behar deetsegu, aldaera guztietan: ekoizpena, merkaturatzea, banaketa, azken bezeroa, ingurumena, eta abar.

Eta Euskal Herria Bilduk aurkeztutako PNN bera kontuan hartuta, eta Elkarrekin Bizkaiak aurkeztu dituan zuzenketak, ez ditugu babestuko, esango deusuedazan errazoiakaitik.

Lehenengo puntu bietan zuzkidura ekonomikoez hitz egiten da, eta dana ez da dirua, proiektuak garatzeko laguntza be garrantzitsua da, berez bideragarri izan daitezana. Beraz, Aldundiak diruz laguntzen dau, Belardiren kasuan moduan, Eusko Jaurlaritzaren 210.000 € jasoten ditu, berak daukalako eskumena, eta Euskal Herria Esnearen kasuan, barriz, proiektuaren babesaz.

Hirugarren puntuan, Aldundiak nekazaritza ekologikoa ez dau ezetara be diru-laguntzetatik kanpo itxiko. Hori bai, diputadu andreak esan ebanez, profesionali zuzenduta dago. Laugarren puntuan, Aldundiak elkargoakaz hitzarmena egin daiala eskatzen da, baina Aldundiak ez dauka eskumenik, eskumen hori Eusko Jaurlaritzarena da; beraz, Aldundiak horretan gauza gitxi egin leike. 5. puntuan, lurren funtsari buruz, esan behar da Aldundiak ahal

dauen guztia egiten dauela erabilten ez diran lurzoru publiko eta pribatu guztiak funtsean sartzeko, baserriarren eskuetan jartzeko. 6. puntuan, aholkularitza ustiapen-tipologia bakarrera bideratzea eskatu dau. Ez gagoz ados, eta aholkularitzaren eta prestakuntzaren oinarriak Lorra hitzarmenean jasota dagoz. Zazpigarren puntuan, tokiko elikadura-sistemakaz zerikusia daukien proiektuen zuzkidura ekonomikoa handitzeko eskatu dau. Ezin da handitu, Diputazioak ez daukalako horretarako partidarik. Ustiategietan inbersinoak egiteko diru-laguntzak emoteko orduan, balorazino-erespide batzuk badagoz. 8. eta 9. puntuetan, Aldundiak banaketa-puntuak eta prozesamendu-sistema publikoa sortzeko eskatu dabe. Hori ez da posible, Lehiaren Legea urratzen dauelako. Aldundiak egin dauena da tresna bat sortu tokiko ekoizleei beren produktuak banatzen laguntzeko, Eup! Laguntza zuzenen 10. puntuari jagokonez, hori jasota dago NPBn, eta pandemia bezalako une berezietan, hainbat laguntza bideratu dira inor atzean ez ixteko. Azkenik, eta amaitzeko, ikusten dogu PNN honetan eskatzen dana honezkero egiten dabilela Aldundia, edo ez daukala eskumenik. Eta, beste aldetik, gure ustez, gaia oso tokiko ikuspegitik aztertzen da, eta horregaitik bozkatuko dogu ezetz. Nada más, muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Ortiz Zaballa. Y tiene la palabra el representante del Grupo Nacionalistas Vascos, el señor Beitia Zurinaga.

El Sr. **BEITIA ZURINAGA** jaunak: Gracias señora presidenta y buenos días a todos. Tras la presentación de una enmienda de Podemos a la moción presentada por Bildu, a primera hora de esta mañana se me ha trasladado que ambos grupos han presentado una enmienda transaccional. A pesar de la transaccional, la razón o los puntos de la moción no han variado demasiado, salvo un añadido. Seguiré, entonces, con el mismo esquema que hay al principio en la justificación de la moción de Bildu.

En esta justificación hay muchos puntos en los que estamos de acuerdo desde nuestro grupo, pero esto tampoco es nuevo, lo hemos manifestado en otros muchos plenos, porque el sector necesita del apoyo de todos para que el sector sea productivo y económicamente viable, y en algunos casos se manifiestan diferencias legítimas, como en este caso, como veremos hoy. Pero aunque adelantemos nuestra negativa, les digo que seguiremos trabajando la mayor parte de las diferencias, y todo en beneficio del sector.

Dicho esto, expondré punto por punto las razones de la negativa.

Primer punto, que aporte también dotación económica a la leche Euskal Herria, otros productores que existen en este sentido... No voy a leer todo. De momento no hay dinero destinado a los comercializadores de leche. Que Kaiku Berdeak ha apoyado la creación del clúster por parte de la Diputación, eso sí, pero este cluster sirve como herramienta para la obtención y canalización de los Fondos Next. En resumen, en Bizkaia hay varias empresas comercializadoras de leche, eso sí, y la Diputación apoyará a todas ellas como hasta ahora, con ayudas que están en las competencias de la Diputación, garantizando la viabilidad de los proyectos y demandando el interés general.

Segundo punto, que dote el suficiente dinero al proyecto Belardi por su importancia como iniciativa de transformación de carne. Totalmente de acuerdo. El proyecto Belardi cuenta con el apoyo de la Diputación, así lo afirmó la diputada en el pleno de control. Por lo que sé, de momento la Diputación ha dado a la comisión de valoración de los proyectos de Aiaraldea su opinión sobre la importancia de Belardi. En cuanto a la financiación, en este momento se ha solicitado que reciba una subvención del Gobierno Vasco por importe de 2002 euros, en la medida en que es su competencia y que se enmarque dentro del plan estratégico de Aiaraldea.

Pero también hay que decir que la subvención del programa del Gobierno Vasco Lehiatu no es compatible con otras ayudas. Por lo tanto, estamos limitados en esta materia como Diputación, tanto desde el punto de vista competencial como por la imprescindible adecuada gestión de los recursos entre administraciones. Pero la Diputación está trabajando para canalizar la subvención en todas las formas posibles. En este momento la Diputación estaría dispuesta a ese máximo del 40%, a cubrir ese 40% de la subvención, porque esos 2002 euros no lo cubren. No sé cuánto es la cantidad más o menos, pero sobre 20.000-30.000 euros.

Respecto al tercer punto, las condiciones, criterios, etc. para la percepción de la dotación económica extraordinaria que la Diputación va a sacar para amortizar los costes de las materias primas, no excluyen ninguna explotación, es decir, la Diputación está trabajando con el sector y sus agentes, es decir, con los sindicatos, Bioel, Lorra, etc., y lo que está claro es que las ayudas van dirigidas a todo el sector, eso sí a los sectores profesionales.

El punto 4, que la Diputación firme un convenio... No voy a leer todo. La gestión de los comedores escolares es del Gobierno Vasco, la Diputación participa en algunas propuestas y acciones, pero de forma puntual, participando en grupos de trabajo con otros agentes, pero el liderazgo es de los agentes sociales y del Gobierno.

El quinto punto, que sea la Diputación la que ponga los recursos necesarios en relación con los fondos de tierras. Hay un punto en la Diputación que trabaja este tema. Cada año se aportan datos sobre la distribución de las parcelas, etc., es un tema que sale en varias comisiones. En los últimos años igual no, por la pandemia, pero en años anteriores se daba cuenta de ello todos los años. A la vista de los datos previos a la pandemia, se ofertaron 14 parcelas y se adjudicó una única. Es decir, se ofrecieron 37.000 metros cuadrados y se repartieron 2700 metros cuadrados. Creo que la Diputación hace todo lo que está en su mano en este punto.

En el punto 6, toda la formación y asesoramiento que directa e indirectamente ofrece la Diputación... todo el punto La asistencia técnica otorgada al sector por parte de la Administración figura en el acuerdo firmado con Lorra. Es decir, para ayuda a la reproducción, control de rendimiento, libro genealógico, enfermedades de plantas, técnicas de cultivo de cosechas, poda, sanidad animal, etc. La transformación, los circuitos de comercialización, son trabajados por el Gobierno Vasco, junto con otras iniciativas que pongan en marcha la Fundación Elikatea y Ekolurra y el Gobierno Vasco.

Punto séptimo. Este punto no es posible, en mi opinión, o en nuestro grupo, llevarlo a cabo precisamente porque no hay un programa de estas ayudas. Eso sí, existe la posibilidad de recibir una subvención, para quienes ofrezcan y cumplan los requisitos, y creemos que esto va a seguir así. Las explotaciones que certifican la producción ecológica reciben dinero, las que forman parte del programa de certificación de calidad, las que venden el 40% de su comercialización en circuito corto, y las que tienen firmados compromisos agroambientales y climáticos. Pero en este punto hay mucho trabajo por hacer y desde nuestro equipo estamos convencidos de que la Diputación está en ello.

Puntos 8 y 9. En estos puntos daré una breve respuesta. La Diputación no distribuidora y transformadora de los productores porque no está entre sus competencias, y porque va en contra de la competencia.

En el punto 10, la apuesta de nuestro grupo es que la acción rural, la ganadería y el propio sector tengan una rentabilidad, salario y una adecuada calidad de vida. Pero creemos que para eso no es adecuado que el sector compense sus ingresos con subvenciones.

Y luego, que los otros dos puntos mencionados, no me da tiempo, que hay que atenerse a lo que establece la ley de calidad, eso sí, que se ha aprobado recientemente. Pero quienes tengan la competencia deberán establecer primero el precio de coste. Estamos convencidos de que luego la Diputación estará dispuesta a colaborar para cumplir la ley y avanzar. Pero antes de eso, cuáles son los costes de producción y cuál es el precio de cada producto, no es competencia de la Diputación, lo tiene que establecer alguien. Y creemos que la Diputación de Bizkaia seguirá defendiendo los productos autóctonos y al consumidor como hasta ahora, para llevar adelante esa soberanía y seguirá en ese camino. Pero no es su función. Seguiré luego.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señor Beitia Zurinaga. Pasamos al turno de respuestas. Para empezar, tiene la palabra la representante del grupo Euskal Herria Bildu, señora Arriola Alzola.

La Sra. **ARRIOLA ALZOLA** andreak: Gracias señora presidenta de mesa. Yo lo que veo es una falta de concreción por parte del gobierno, una falta de compromiso, evidente hacia el sector, y también hacia los consumidores. En efecto, para recibir una alimentación saludable, sostenible, es decir, sostenible económica, social y medioambientalmente, existe aquí una evidente falta de compromiso por parte del gobierno de esta Cámara. Yo diría que la Diputación Foral de Bizkaia o el equipo de gobierno, se limitan al marketing, y en el mejor de los casos, a apoyar el agronegocio y a apoyar a esa industria.

El señor Andrade dice que respecto al sector económico no, le he entendido que el sector primario está coyunturalmente en crisis. Y no es coyuntural, esta crisis es estructural, y lleva 40 años aquí en Bizkaia en crisis el sector primario. No es algo puntual y concreto, y tratamos el mercado como si fuera sacrosanto, y vemos que el mercado no lo reparte adecuadamente, porque de lo contrario los baserritarras no estarían no pudiendo llegar al salario mínimo actual con jornadas de cincuenta y dos horas. Y si el sector no es atractivo, ¿cómo va a entrar más gente al sector? La falta de viabilidad la he señalado a través de informes, que es evidente en el sector, y corresponde a esta cámara y a la Diputación Foral de Bizkaia poner en marcha políticas públicas concretas a favor del sector primario.

Y ahora es el momento, casi es tarde para eso. ¿Cuál es la realidad en Bizkaia? Pérdida significativa de empleo en el sector primario. En dos décadas se ha perdido un 43% en el sector primario, una pérdida de suelo tremenda, con una caída del 37% entre 99 y 2019. Entre 2009 y 2016 se han perdido 10.000 hectáreas más, 37.000 hectáreas son totalmente útiles en la actualidad. El número de producciones ha crecido muchísimo, los baserritarras no pueden sobrevivir. Y la Diputación Foral de Bizkaia debería poner en marcha políticas públicas activas, pero no lo hace porque no concibe al sector primario como un sector estratégico. No la tomaba hasta hace 30 años y tampoco hoy en día. Son muchas palabras y pocas acciones lo que vemos aquí.

Incluso las que tenemos aprobadas, las mociones que tenemos aprobadas en esta Cámara, que fueron el origen de la pregunta, tampoco se cumplen. Y lo de la transformación cárnica fue aprobado en esta cámara en la anterior legislatura y no se ha cumplido. Y justo lo aprobado en esta legislatura para promover la agroecología, modelos diversificados y eso. Lo que hemos hecho en esta moción ha sido únicamente hacer una concreción a este segundo punto, es decir, bajar al terreno y ver los proyectos concretos, y basados en las respuestas que se nos dieron en la pregunta. Y que lo veo aceptar.

Por tanto, cómo hay que entender esto, cómo hay que entender eso. Al poner blanco sobre negro se dice que no. Y si se nos dice que no a nosotros da igual, pero se dice que no al sector, se dice que no al sector que está muy crítico. Sorpresa ninguna. Lo que se

hace es, lo que hacemos aquí es quitarnos la máscara y presentarnos como somos, y se ha dicho que no al sector primario. Nuestro único objetivo era dignificar las condiciones laborales de los baserritarras, hacer atractivo el sector porque hoy en día no es atractivo crear empleo verde, y poder poner a disposición de los consumidores alimentos saludables. Se dice que no, se han mencionado diferentes razones.

El señor Ortiz dice que en Europa dicen esto y lo otro. Ojalá hiciéramos más caso a Europa, o le hicieran. Miren en Austria, miren en Italia. ¿Lo que allí es posible aquí no lo es? El PAC es igual aquí y allá.

También se han mencionado, señor Ortiz, en sus palabras se hacen muchas cosas, muchos esfuerzos, en los fondos de tierra, etc. Pero a quién queremos engañar. Ni siquiera incluyen en el fondo de tierras las instalaciones y terrenos que la propia Diputación Foral de Bizkaia tiene abandonadas, y eso lo dice la ley 17/2008. El punto décimo de la moción era la ponderación de las jornadas de trabajo y la fijación de este extra para garantizar esos salarios dignos. Eso lo permite el PAC, pero aquí no se hace.

El señor Beitia ha dicho muchas cosas, no me va a dar tiempo. Pero bueno, lo dicho. El principal punto que demandábamos era hacer viable el sector, y eso priorizando el modelo agroecológico y diversificado, y se nos ha dicho que no. También menciona el tipo de ánimo que dan a la hora de introducir alimentos en los comedores escolares. Aquí no hace falta dar ánimos, aquí lo que hace falta es apoyarlo técnica y económicamente. Y eso se puede hacer, porque se hace en otros sitios. ¿Se hace en Catalunya, y aquí no se puede hacer? En Cataluña hay tiendas instaladas por la propia administración para facilitar a los baserritarras la comercialización directa, y también zonas de transformación. Las pone la administración pública, y las usan los baserritarras, y nadie se asusta, no supone ningún cataclismo; y aquí no es posible, aquí lo tiene que hacer el mercado. Lo que ocurre es que para llegar a esta situación, es decir, para poder dejarla en manos del mercado, tendría que estar más fuerte el sector primario y no lo está. Sin más, termino, una pena. Seguiremos haciendo propuestas, y hoy la pena es para el sector, no para nosotros.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted señora. Arriola Alzola. A continuación, el representante de Elkarrekin Bizkaia, Don Benito Ziluaga, tiene la palabra.

El Sr. **BENITO ZILUAGA** jaunak: Eskerrik asko mahaiburua andrea. Hasteko, Andrade jauna, zure alderdikideagaz, Iturgaiz jaunagaz, hurrengoan abeltzaintzako ustiategi batera zoazenean, makro baserri batera joateko aholkatzen deusut. Caparrosan, Nafarroan, daukazu bat. Gero ikusiko dogu zelan hartzen zaituan esne-sektoreko abeltzain txiki batek, ia besoak zabalik hartzen zaituan. Nik uste dot zuk eta zure alderdiak hain ekarpen gitxi daukazuela lehen sektoreari buruzko eztabaidan egiteko, guzur bat asmau behar izan dozue Garzon ministroari eta gobernu osoari erasotzeko. Eta horrek erakusten dau zuei lehen sektorea bardin deusuela, zuek politika arnasa hartu ezinezko leku bihurtu gura izan dozue, zeuek bakarrik eutsiko deusazuen lekua. Eta benetan dinotsut ez dozuela lortuko.

Orain jagokun gairik garrantzitsuenean sartuta, orain eskuartean daukaguna, gobernuari eusten deusien alderdiek egiten diran gauzen, eskumenen eta abarren zerrenda nahiko luzea emon dabe. Gatxa da guzti-guztiak aitatzea. Baina sentsazino orokorra edo laburpen orokorra da, dana egiten dabilzala, eta egiten dan guztia ondo dagoala. Baina errealidadeak ez dau hori erakusten.

Orain dala aste batzuk lehen sektorearen manifestazinoa euki genduan Arriagaren aurrean, eta ez dot uste hara joango ziranik behiei Arriaga Antzokia erakusteko.

Prentsak manifestazino horretatik jaso zituan eskariak oso argiak eta zehatzak dira: elikadura-katearen Legea berehala betetea, eta Bizkaian erakundeen babesik eza be salatu eben, eta koherentzia handiagoa eskatzen eben euskal administrazioen politketan, nekazaritza eta familia-abeltzaintza babesteko, horixe dalako gaur hemen aitutzen gabilzana, baserritar eta nekazarien ekoizpenei laguntzea, sektore horren barruan estrategikoak diralako.

Gauzak egiten dozuez? Bai. Gehiago eta hobeto egin daitezke? Nik uste dot baietz, eta zuek egiten dozuenez kritikak ez eze bestelako proposamenak be jasoteko zabalik egon behar da. Eta uste dot mozio honetan holako piloa dagoala, 12 puntu dira, horreetako bakotxa eztabaida geinke, baina danak erraz beteteko moduko proposamenak dira.

Kontuan izan behar da lehen be aitatu dodala garrantzitsua dala sektorean profesional barriak sartzea, sektoreak irauteko. Kontuan izan behar da sektorean sartu barri diran persona gehienak, gero eta gehiago, nekazaritzakoak ez diran familietatik datozela, hau da, sektoretik kanpoko personak. Eta nik uste dot hemen laguntza oso espezifikoa eta oso zehatza behar dala profesional mota horrentzat. Zentzu horretan, nik uste dot 10. puntukoa bezalako proposamenak, SMIRA arteko konpentsazino hori nahiko interesgarria dala. Sektorean bertan, sektorearentzako oinarrizko errenta moduko bati buruz berba egiten dabe, ustiategi bat martxan jartzen danetik etekin nahikoa emon arte, hileak igaro leitezke, baita urteren bat be. Orduan, bideragarritasun hori ziurtatzeko laguntza be izango litzateke. Lurralde honetan ekintzailtzaz hainbeste berba egiten dala, ikusi daigun zer dan Bizkaiko lehen sektorean ekitea. Behar gatxa be gatxa da benetan.

Lurrak eskuratzea aitatu da. Uste dot esan dozuela ez zirala banatu atera ziran guztiak. Nik ez dot uste errealidade horren aurrean besoak gurutzatuta geratu geintezkanik, aztertu edo begiratu egin beharko da zergaitik geratu diran banatu barik lur-banku horretako lurrak. Batez be gure errealidadean, Bizkaiko nekazaritza eta abeltzaintzarako lurra karua be karua da-ta, eta horrek arriskuan jartzen dau ustiategi askoren bideragarritasuna, batez be txikien bideragarritasuna. Beraz, aholku bategaz amaituko dot. Nire ustez, ahalegin handiagoa egin behar da zer egin daitekeen edo zer hobetu daitekeen gehiago pentsatzeko politikan, eta ez hainbeste zertan gabilzan.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señor Benito Ziluaga. El representante del Grupo Berezia-Partido Popular Bizkaia, señor Andrade Aurrecoetxea, tiene la palabra.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jauna: Eskerrik asko mahaiburu andrea. Jakina, Benito Ziluaga jauna, ez kezkatu gu baserrietara edo nekazaritza eremuetara joaten garanean bisitan eta ezagutzera. Argi eta garbi daukagu zer esaten deuskuen, eta beti gauza bera esaten deuskue, beti gauza bera esaten dabe, zuek ez hemen ez Madrilen esaten ez dozuena: zuek defendatzen dozuen otsoari ez; eta protesta orokor bat produktu horreen guztien ekoizpen-kostuen igoeragaitik, ze hori Diputaduen Kongresuan egiten dozuen kudeaketa politikotik dator. Hori esaten deuskue joaten garanean. Eta hauteskundeak dagozanean be esaten deuskue, Gaztela Leonen moduan, gehiengo handia atera dogu, eta zure alderdiak diputadu bat izan dauela uste dot, diputadu bat atera dozuela uste dot.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Por favor, tranquilidad en las tribunas y sí, tengo que pedirle una vez más al señor Andrade Aurrecoetxea, berriro eskatuko deusut eztabaidako gaiari heltzeko. Erantzuten zabiz. Gaztelako hauteskundeetara joan zara. Beraz, mesedez, lehendakaritza hau da zuhur interpretatzen dauena eztabaidagai zer dan edo ez dan. Mesedez, barrero dinotsut eztabaidarako gaira mugatzeko.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Danak sartu daitezkezugaz eta guk ezin dogu erantzun.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Ez dot uste hori holan danik, zure lehenengo hitzaldian zeuk hasi dozu eztabaida hori.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Esan dau ezin garala baserri batera joan, eta esan deutsat joan gaitekezala, eta herritarrek esan dabe.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Jarraitu, mesedez, baina eskertuko neuskizu gaiari heltzea.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Proposamen zehatzean sartuta, lehen esan deutsudan moduan, zati batean bat gatoz eta beste batean ez. Proposamen orokorretik ulertzen dot, ez dakit zelan esan, zuek nekazaritza eta abeltzaintza masifikatua gura dozuela, produktuak dendetan saltzea nahi dozuela. Merkataritzarantza, ekoizpen industrialerantza, ze esan lei produktuak saldu gura dozuezala. Nire ustez, euskal nekazaritzak, Bizkaikoak, zerbait bereziagorantza jo behar dau, bikaintasunerantza, ekoizpenerantza. Ez daukagu handizka saltzeko produkturik, ezin gara lehiatu, ez daukagu orografiarik nekazaritza eta abeltzaintza masifikatua ekoizteko, ez daukagu gaitasun hori. Orduan zertarako balio dau Bizkaiko logistika-enpresa bat eukitea, edo denda logistikoak, produktu nahikorik ez badago, nire ustez.

Beraz, nik uste dot kalidadera jo behar dogula eta errentagarritasunari begitu behar deutsagula, ze zeuk esan dozu, eta egia da produktua ez dala errentagarria. Orduan, laguntzak automatizazinora, robotizazinora, makineriara joan behar dira, gure nekazarien eta abeltzainen lana ahal dan lekuan errazago egiteko. Eta baliteke horrek produktua kostu txikiagoagaz ateratea eragitea. Dana dala gasolinak gora egiten jarraitzen badau ezinezkoa da. Baina horretan inbertidu behar dogu, hori bultzatzen, laguntza horreetan, kudeaketa hobetzeko diru-laguntza horreetan, produktua errentagarria izan daiten. Ez masan ekoizten saltokietan saltzeko gero, edo ikastetxeetan sartzen saiatzeko. Laguntza ez da hor egon behar, laguntzak ez dau erosketan egon behar, produkzioan egon behar da eta kalidadeko produktua izan daitela, kalidadeagaz saldu behar da, bikaintasun horregaz, ze produktu horrentzako merkatu bat dago. Guk holan ulertzen dogu, beraz, zuek hainbeste zabaldu gura dozuen alderdi hori, nik proposamenari buruz hori ulertu dot eta, beharbada txarto ulertu dot, ez gatoz bat. Gehiago partekatzen dogu kalidadeko ekoizpen hori, eta kalidadeko produktutzat saltzea, jenteak ordaindu behar dauen prezioan, hori dalako merezidu dauen prezioa. Langileak berea kobratzea lortzen badogu, eta lan gitxiago egitea makineria gehiago edo industrializazino gehiago daukalako, edo robotizazino eta modernizazino gehiago daukalako, danok pozik egotea lortuko dogu. Eskerrik asko. Eskerrik asko mahaiburu andrea. Parkatu.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Andrade Aurrecoechea. El representante del Grupo Socialistas Vascos, señor Ortiz Zaballa, tiene la palabra.

El Sr. **ORTIZ ZABALLA** jaunak: Gracias de nuevo. Eztabaida pixka bat zentrauko dogu, eta garrantzitsua dan arloan sartuko gara: Bizkaiko lehenengo sektorea, gaur horretarako gagoz hemen eta.

Lehenengo eta behin esan gura dot hori errealidadetik kanpora dagoala, Arriola andrea. Lehenengo sektoreko bizkaitarrek argi jakin behar dabe, eta, zorionez, argi daukie, Foru Aldundiak eurakaz konpromisoa daukala, hori badakie.

Politika aktiboak aitatu dozuz. Bizkaia Aurrera ez da politika aktibo bat pandemia une baten, eskuliburu bategaz ez etorrena, eta txoke-neurri oso garrantzitsu batzuk aplikatu ziran une horretan? Hori ez da politika aktiboa? Ez dira neurri zehatzak? Lehen aitatu dodan dekretuan Gobernuak onartu zituan neurriak, katearen kate-mailetako batek be galdu barik saltzen ixten ez dauena? Oraintxe bertan PERTEn onartu barri dana, ez ete dira neurri zehatzak, hona Bizkaira be helduko diranak? Jakina, Espainiako Gobernuak otsailaren 8an onartu ditu, horreek ez dira hona Bizkaira etorriko diran neurri zehatzak? Ziur baietz, ziur baietz, baina denporea emon behar jako. Antza danez, Nekazaritza Politika Bateratua gustukoa dozu, eta lehen esan deusudann moduan, Bizkaia ez da uharte bat, eta Bizkaia be Europaren barruan dago. Beraz, neurri horreek be hona etorriko dira. Neurri zehatzak, hemen orain dala gitxi berbaz erabili doguzanen modukoak, eukalptoaren luzamentua adibidez, hori ez da neurri zehatz bat? Nik uste dot neurri zehatza dala hori be. Mendiei buruzko Foru Arauaren Proiektua laster etorriko da, ez da neurri zehatza? Neurri zehatz bat da. Ganbera honetan landa-eremuetarako Interneti buruz adierazi dan proiektua, jarduerak garatu ahal izateko, ez da neurri zehatza? Aldundiak landa-eremu guztiak modu digitalean hornitzeko daukan konpromisoa ez da neurri zehatza? Neurri zehatza da, gure ustez, neurri zehatza da. Baina esaten neutsuna, denporea hartu behar da, ezin dira danak batera egin, ezinezkoa da danak batera egitea. Barriro esango deusut lehen esan deusudana, zuek eta Elkarrekin Bizkaia taldeak zuzenketan, PNNn eta gero zuzenketan planteatzen zenduena, talde nazionalistako bozeramaileak be esan dauen moduan, neurri gehienak eginda dagoz edo ez dira Aldundi honen eskumenekoak. Bai, edo eginda dagoz edo ez dauka eskumenik. Eta hor dago ikastetxeen adibidea, ezin dogu, hezkuntzan ez da Aldundiarena, hezkuntza Eusko Jaurlaritzarena da.

Orduan, esan deusudana. Bukatzeko, ezin dogu zuek aurkeztutako PNN babestu, ezta zuzenketak be, eta lehen be esan deusudan gai garrantzitsu bategaitik, hau da, oso ikuspegi lokalista daukazue, epe laburrera begira, eta kontuan izan behar dozue Bizkaiari buruz gabilzala, baina Bizkaia Euskadin dago, Euskadi Espainian dago, Espainia European dago, eta ikuspegi hori euki behar dogu. Ikuspegi hori ez daukagun bitartean, ez dogu aurrera egingo. Nada más, gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted señor Ortiz Zaballa. Y tiene la palabra el representante del Grupo Nacionalistas Vascos, el señor Beitia Zurinaga.

El Sr. **BEITIA ZURINAGA** jaunak: Gracias de nuevo, señora presidenta. No sabía cómo enfocar esta segunda intervención. He tenido diferentes ideas, pero, después de oírles, igual empiezo por donde debía empezar desde el principio. Creo que hay una confusión competencial que conduce a algunos debates que se dan aquí, pero que no se deben dar. Y yo creo que, he estado buscando, sólo lo he encontrado en castellano, me van a perdonar, pero que lo leeré en castellano.

Eskumenak. Ordenamendu juridikoako eskumenen barruan, Bizkaiko Foru Aldundiari emoten jako eskumena, eta 1983ko azaroaren 27ko Legeak (azaroaren 25ekoa) eskumen eta eginkizun horreek jasotzen dituen ordenamendu organikoari jarraituz, Aldundiak eskumena dauka arlo honeetan: basoak, baso-zerbitzuen aprobetxamentua, abelbideak eta larreak, 108. artikuluan ezarritakoaren arabera. Eta, zehatzago, beste honeek: landare-osasuna, nekazaritza-erreforma eta -garapena, zabalkundea, sustapena, nekazaritza-gaikuntza, mahastizaintza eta enologia. Ekoizpena: landare-ekoizpena, haziak, landareak eta mintegiak izan ezik; ekoizpena: animalien osasuna eta arrain-aberastasun kontinentalaren eta ehiza-

aberastasunaren aprobetxamendu-erregimena. Eta Eusko Jaurlaritzaren eskumenak dira nekazaritza-, nautika- eta arrantza-arloko prestakuntza; nekazaritzako, nabigazinoko eta arrantzako lanbide-gaitasuna sustatzea; nekazaritzako, arrantzako eta elikagaigintzako industriak sustatzea; arrantzako eta elikagaigintzako nekazaritza-produktuak merkaturatzea; nekazaritzako eta elikagaigintzako industrien eta elikagaigintzako arrantzako industrien teknologiak sustatzea zuraren baso-sektorean; elikagaien balio-katea egituratzea, sustatzea, lehen mailako ekoizpenetik gastronomiako kalidaderaino; nekazaritza-elkarteak sustatzea eta eurakazko hartu-emonak; landa-garapeneko alkarreak; nekazaritzako eta arrantzako produktuen bermea eta kalidadearen sustapena eta defentsa; jatorri-izendapenak; nekazaritzako eta arrantzako produktuen kalidade- eta berme-bereizgarriak; elikagaien segurtasuna bultzatzea.

Creo que mientras todo esto no esté claro, si seguimos confundiendo cuáles son las competencias de cada uno, seguiremos hablando mucho. Pero mientras tanto, mientras hablamos mucho, porque no tenemos claro cuáles son nuestras competencias, la Diputación y el Gobierno en sus acciones, seguirán defendiendo el sector, y creo que con muchas acciones. Nada más.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Beitia Zurinaga. Y terminado el debate, someteremos a votación la transaccional. Votos a favor de la transaccional, votos en contra y abstenciones

El resultado es el siguiente: 50 votos emitidos en total; 16 votos a favor; 32 en contra; 2 abstenciones. Así que no se ha aprobado la transaccional.

Y agotado el orden del día, finaliza también esta Asamblea General. Que tengan todos un buen día.

Batzarra 12:40an amaitu da.

Se levanta la sesión a las 12:40 horas.